# Goienkaria

2009ko urtarrilaren 9a > Egubakoitza > IX. urtea > 359. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net



"Makina-erremintak beste sektore batzuk baino hobeto eusten dio krisiari"

**Endika Gandarias**
MUko iraskasle eta ikerlaria > 07

**G2a** Zaborrez egindako objektuak ikusgai Aretxabaletan > 25

**ARRASATE**
**Madrilgo dirua Aldaiko parkea eta Santa Marina urbanizatzeko** > 12

**BERGARA**
**Urtarril bukaerarako amaituko dituzte San Pedroko lanak** > 14

**ELGETA**
**Zapateroren 186.000 euroekin teilatuak konponduko dituzte** > 21

**BEHERAPENAK** > URTARRILAREN 7TIK MARTXOAREN 31RA IRAUNGO DUTE

# Bailarako merkatariak pozik daude Gabonetako salmentekin

**KRISIA** Horrek eragindako beldurrari aurre egiteko, Gabonetan eskaintza bereziak egon dira Debagoienean ere

**BEHERAPENAK** Aurreko urteetan %20-30 arteko deskontuekin hasi dira gurean; aurten %50 ere ikus daiteke

**GASTUA** Kontsumitzaileen elkartearen arabera, EAEn batez beste, 102 euro gastatuko dugu beherapenetan > 02-03

**JENDARTEA** > ELURTEA

## Gidariengan eragina izan du elurrak

Istripu larririk ez da egon, baina besteak beste, Gatzaga eta Kanpanzar itxita egon dira > 04

## Bihar, zapatua, elurtutako zirkuituaren gainean ibiliko dira ziklistak

Bihar egingo dute Osintxuko 2. ziklo-krosa, eta lasterketa hori Espainiako Koparako baliagarria izango da –domekan Itsasondon egingo dute azken lasterketa–. Horrek erakarrita, Euskal Herriko eta kanpoko ziklista mordoa animatuko da proban parte hartzera, nahiz eta, erretratuak erakusten duen moduan, zirkuitua erabat zurituta egon.

Horrek ez du inor atzera botako; hori bai, ziklistek aurreikusita zutena baino gehiagotan bota beharko dute bizikleta bizkarrera, eta korrika egin. > 24



**ZURI-ZURI** Sumofic-Lokatzako Anartz Gartzia, Jon Rivero eta Unai Martinez zirkuitua probatzen, eguaztenean. XABIER URTZELAI

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04
**Gutunak** > 06
**Elkarrizketa** > 07
**Herriak** > 09-23
**Kirola** > 24
**Kultura** > 26
**Sailkatuak** > 27
**Berri-zakua** > 28-29
**Telebista-irratia** > 30
**Non-zer** > 31

**DEBAGOIENA** > ARANTZAZU

## Milioi bat eta erdi euro Arantzazura

Bisitariendako harrera zentroa egiteko lanak finantzatuko ditu hala, Aldundiak > 04

**ONGIZATEA** > ZAHARREN EGOITZA

## Zaharren egoitza berria udaberrirako

Debagoieneko nagusiei zerbitzu emango dien egoitza berriko lanak martxa onean doaz. Aretxabaletan egiten dihardute, Izurietara bidean, eta martxo edo apirilerako zabalik egotea espero dute agintariek. > 18



**NEGUKO BEHERAPENAK** > DESKONTU HANDIAK LEHENENGO EGUNETIK

# Prezio erdian dauden produktuak topa ditzakegu hasieratik

**EZ OHIKOA** Aurreko urteetan, ibarreko saltzaileak %20-30 arteko deskontuekin hasi dute eta amaiera arte ez dute %50 eskaini

**GABONAK** Krisiak eragindako beldurrari aurre egiteko, Gabonetan eskaintza bereziak eta %20 inguruko deskontuak egin dituzte


Herritar bat Arrasateko denda batean, deskontua duen produktua arretaz begiratzen duela.

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Gabonen ostean kontu korrontean dirua izatea lortu dutenek badute datozen egunotan zertan gastatu; nahi izanez gero, behintzat. Joan den eguaztenean, urtarrilak 7, neguko beherapenak hasi ziren Euskal Autonomia Erkidegoko eta, hortaz, Debagoieneko saltokietan. Martxoaren 31n amaituko dira horiek.

Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Federazio Independenteak –FUCI- jakinarazi du aurten Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek 102 euro gastatuko dituztela neguko beherapenetan; hau da, joan den urtean baino %15 gutxiago. Elkargo horren esanetan, arropa eta osagarriak erosiko dituzte gehien. Beste aditu batzuek, hala ere, ez dute bat egin iritzi horrekin. Nabarmendu dute bizi dugun krisi ekonomikoak beherapenetan eragin positiboa izan dezakeela eta orain arte erosteko aukera izan ez dutenendako garai aproposa izan daitekeela.

Logikoa denez, datozen hilabeteotako salmentak onak izatea espero dute Debagoieneko merkatariek. Arrasateko Ibai-Arte merkatarien elkarteko presidente Arantza Arantzabalen esanetan, "lehen erosi ez duena, agian orain erostera animatuko da. Dirua aurreztu duenarendako garai ona izan daiteke oraingoa, eguneroko gauzak merkeago erosteko aukera izango du-eta. Krisiak beherapenetan lagundu dezake".

**Askotariko iritziak daude. Batzuek diote aurten diru gutxiago gastatuko dugula eta beste batzuek orain arte erosi ez duguna merkeago lortzeko aprobetxatuko dugula**

**Aurten Gabonetako kanpainari dagokionez, Debagoieneko merkatariak pozik daude salmentekin; Olentzero eta Errege bezperan ondo saldu zuten gurean**

#### %50EKO DESKONTUAK

Oñatiko Markuleta dendako Arantxa Markuletak zaila ikusten du beherapenetan zer gertatuko den aurreikustea. Eguaztenean %50eko deskontuekin hasi ziren eta egun horretan, goizean, mugimendu handia egon zela azaldu digu: "Normalean %30-%40ko deskontuekin hasten gara, baina aurten deskontu indartsuekin hasi gara: %50ekoarekin. Genero larregi ez dugu eta horrelakoetan zaila izaten da saltzea. Taila gutxi geratzen dira eta ez dago aukera asko. Hori ez da lehenago asko saldu dugulako, baizik eta aurten, aurreikuspenak zeintzuk ziren ikusita, gero gutxiago ekartzea erabaki dugulako".

#### AURREIKUSPENAK EGITEA, ZAILA

Aretxabaletako Aretxarte merkatarien elkarteko Alberto Asensioren arabera ere zaila da jakitea beherapenetan salmentak nola joango diren esatea. "Teorian, bizi dugun krisi ekonomikoagatik diru gutxiago gastatuko dela diote baina auskalo zer gertatuko den. Amaitu arte ez dugu jakiterik izango nola joan diren". Bergarako Bedelkarreko presidente Ander Berraondok ere gauza bera esan du horren harira.

Oñatiko Olalde zapata dendan, bestalde, zeruari begiratuko diote. Datozen asteotan egiten duen eguraldiak baldintzatuko ditu salmentak. Hango Kristina Bikuñak esan duenez, "Eguraldi ona egiten badu krisia igarriko dugu. Guk eguraldi txarra behar dugu eta oraingoz ondo portatzen ari da. Lehenengo egunean mugimendua izan genuen".

Esan bezala, neguko beherapenak ofizialki eguaztenean hasi ziren. Baina, aurten aurreratu direla esan dezakegu. Izan ere, azken asteotan eta, bereziki, Gabonetan eskaintza bereziak eta deskontu esanguratsuak ikusteko aukera izan dugu-eta bailarako dendetako erakusleihoetan eta hortaz, Olentzerok eta bereziki, Erregeek opari merkeagoak egin ahal izan dituzte. Saltoki gehienek %20 inguruko deskontua eskaini dute.

DATUA

**102**

**EURO**

Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Federazio Independenteak -FUCI- egindako inkesta baten arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan 18 urtetik gorako herritar bakoitzak 102 euro gastatuko ditu.

ESANAK

**"Berdin saldu dugu eta promozio bereziak erdi presionatuta jarri ditugu, ondoko saltoki gehienek jarri dituztelako"**

**Arantxa Markuleta** > Saltzailea

#### GABONETAN, SALMENTA ONAK

Ibarreko merkatariak, orokorrean, ez dira azken asteotako salmentaz kexatzen. Arrasateko Arantza Arantzabalek, esaterako, azpimarratu du azken momentuan jendea erostera animatu dela eta salmentak "nahiko ondo" joan direla: "Opari merkeagoak egin direla igarri badugu ere, nahiko ondo saldu dugu, bereziki Olentzero eta Errege bezperetan". Hala ere, aipatu du arlo baten eta bestearen artean ezberdintasunak daudela.

Arantzabalen arabera, krisi ekonomikoak eragina izan du Gabonetan deskontu eta promozio horiek lehenago jartzerakoan: "Arropa eta zapata dendetan eta altzairuen saltokietan igarri dute bereziki krisia. Denboraldian produktu gutxi saldu dituzte eta egoera horri irtenbidea emateko, horrelako ekimenak abian jarri dituzte saltzaileek. Arrasateko denda gehienetan egon dira deskontuak, %20 ingurukoak".

Oñatiko Arantxa Markuletak ere deskontu bera izan du; baina ez udazkeneko salmentak txarrak izan direlako: "Irailean eta urrian oso ondo saldu genuen; azaroa eta abendua, bestalde, hilabete arraroak izaten dira eta salmentek beherazko joera har-


XABIER URTZELAI

tzen dute. Baina, hori urtero gertatzen da. Guk beste urte batzuetan bezala saldu dugu eta promozio bereziak erdi presionatuta jarri ditugu, ondoko saltoki gehienek jarri dituztelako eta jendeak eskatu dituelako".

Olalde zapata dendan ere ez dira kexatzen. Kristina Bikuñak nabarmendu du zapata denden kasuan eguraldiak eragin zuzena duela salmentetan: "Aurtengo Gabonetan eguraldiak lagundu digu; euria, hotza eta elurra egin du-eta. Krisia egon badago, baina baita beharra ere. Eguraldi txarrarekin zapatak bustitzen bazaizkizu beste batzuk erosi behar dituzu derrigorrez. Denbora ona egin izan balu, krisi ekonomikoa igarriko genuke".

**DETAILETXOA BEZEROEKIN**

Deskontuak eguaztenean iritsi ziren Olalde zapata dendara: emakume eta umeen produktuetan %30 eta gizonezkoetan %10. Bikuñak azaldu du, urtero egiten duten moduan, bezeroei detailetxoak eman dizkietela azken astean. "Ohitura dugu erosketekin batera, galtzerdi edo antzeko zerbait ematea. Aurten zertxobait hobetu dugu hori eta galtzerdi pare bat eman beharrean, bi oparitu ditugu; baina besterik ez. Eskaintzarik ez dugu izan".

Aretxabaletako Alberto Asensiok ere ez du deskonturik jarri bere dendan. Beherapenen hasiera ofiziala errespetatzearen aldekoa da bera. Gogorarazi digu herriko saltokietako erakusleihoetan denetarik egon dela Gabonetan. Hortaz, batzuek promozio bereziak eskaini dituzten bitartean, beste batzuek beherapenak hasi arte itxaron dute.

Asensiok aurreko saltzaileen iritziarekin bat egin du. Denboraldiko salmentak ez direla txarto joan aipatu du: "Azaro hasieran ondo saldu genuen, baina hilabete horretako erdialdetik astebetera bitartean, ez genuen ezer saldu. Azaroa hilabete arraroa da, sekula ez duzu jakiten zer gertatuko den. Gabon inguruetan, bestalde, egoera hobetu egin dela esan dezakegu; nahiko ondo saldu dugu".

Bergarako Bedelkar elkarteko ordezkariak eguazten iluntzean bildu ziren Gabonetako kanpainaren gaineko balorazioa egiteko. Hango presidente Ander Berraondok helarazi digunez, herriko merkatariak "pozik" daude.

**INGURUKO HERRIEI BEGIRA**

Bergaran ere saltoki askok eskaintza bereziak eta deskontuak eskaini dituzte: "Krisiak eragin duen beldurragatik egin dugu hori. Krisiaren psikosiagatik jendeak itxaroten du eta ez du erosten. Guk inguruko herrietan, Donostian eta El Corte Inglesen egiten denari begira egoten gara. Gabonetan eskaintza bereziak eta deskontuak jarri zituztela ikusi genuen eta handik astebetera herriko toki askotan bide bera jarraitu zuten". Bada, hala ere, hasiera ofiziala errespetatu duena ere Bergaran.

Berraondok, bestalde, eskerrak eman nahi izan dizkie azken asteotan herriko dendetan erosketak egin dituztenei: "Kalean jendea ibili da eta giroa izan da herrian. Domingo Irala kale berrituan, esaterako, mugimendu handia egon da; musikaz girotuta egon da, gainera. Datozen asteotan ere berdin jarraitzea espero dugu. Eskertzekoa da garai hauetan ere bezeroek gugan duten konfiantza".

Neguko beherapenak, esan bezala, hemen dira eta norberak jakingo du hortik aurrera zer egin behar duen.

### KONTSUMITZAILEENDAKO HAINBAT GOMENDIO

**> EROSKETA ARDURATSUAK**
Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen elkargoek hasi berri diren beherapenetan, erosketa arrazionalak egiteko deia egin dute. Beherapenek prezioaren jaitsieran baino ez dutela eragina eduki behar gogorarazi dute, inoiz ez produktuen kalitatean edo kontsumitzaileen eskubideetan.

**> AURREKONTUA AURRETIK**
Etxetik irten baino lehen, aurrekontu bat egitea eta hori betetzea gomendatu dute.

**> KONPARAZIOA**
Zerbait erosi aurretik, hainbat dendetatik pasatzea eta horietan prezioa eta kalitatea konparatzearen garrantzia azpimarratu dute.

**> ETIKETAK BEGIRATU**
Erosketak egin aurretik, aldi berean, produktuen etiketa arreta handiz begiratu behar da. Taila, ehun mota eta garbitzerakoan egin beharrekoa azaldu behar da.

**> PREZIO BI**
Produktuak beherapenen aurretik zuen prezioa eta deskontua aplikatu ostean, kopuru berria izan behar du jarrita.

**> KREDITU TXARTELAK**
Normalean kreditu txartelak onartzen dituzten dendek, egunotan ere onartzera behartuta daude.

**> EROSITAKOA ALDATU**
Urtean zehar aldaketak egiten dituzten saltokiek, beherapen garaian ere horiek egin beharko ditu.

**> ZIURTAGIRIA**
Aldaketa bat egin edo produkturen bat itzuli nahi dugunean, erosketa horren ziurtagiria erakutsi beharko dugu.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa
Urtarrileko zozketa

Sariak irabazteko
HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
40 euro abendura arte

SARRERAK
BRUESA GBC- IURBENTIA BILBAO BASKET
BRUESA GBC- CAJASOL

UMEENTZAKO LIBURUAK
Pamiela argitaletxearen umeen liburuak.

ZIRA
EKFB Euskal Selekzioko zira bat.

KAMISETA
DANBAKA
Danbakako kamiseta bat.

SARI NAGUSIA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

URDAIBAIKO URRESTI LANDETXEAN GAU BAT


www.toprural.com/urresti
Benetako landetxea Urdaibaien!
Taldeentzat %10-eko deskontua

Zozketan sartuko dira: 09-01-12tik 09-04-22ra jasotakoak



Kanpazar gaina, zuri-zuri eguazten goizean. ARRITXU BARRUSO


Autoak elurrez goraino Leintz Gatzagan, herenegun. ARRITXU BARRUSO

**EGURALDIA** > ELURTEAK

# Urteko lehen elurteek nagusiki gidariei eragin dizkie arazoak

Ibarreko errepideak zabalik egon arren, gidariek arazo ugari izan dituzte ibarreko errepideetan; istripu larririk ez da izan

**T. MADINA/E. MENDIBIL** > ARRASATE

Ibarreko errepideak zabalik egon diren arren, elurrak oztopo ugari sortu die ibarreko gidariei. Hala ere, Ertzaintzak emandako datuen arabera, ez da istripu aipagarririk gertatu, zorionez. Atzo, eguena, hainbat autoren arteko txapa istripua gertatu zen 8:00ak aldera Arrasatetik Kanpazarrera bidean eta, ondorioz, ilaran geldirik zeuden autoak izotzetan trabatuta geratu ziren. Ordu eta erdi inguru egon zen bide zaharra itxita. Bezperan, eguaztenean, beste istripu txiki bat gertatu zen Arlabanen, ondoriorik gabe. Gatzaga eta Udana itxita izan ziren goizez.

Erregе egunean hasi ziren elurteek, Elgetan, Gatzagan, Antzuolan eta Oñatin izan duten eragin handiena. Aipatutako herrietan gatza barra-barra zabaldu behar izan duten trafikoaren eta herritarren joan-etorria errazteko. Gainerako herrietan ere udal langileek eta herritarrek gogor egin behar izan dute lan egunotan. Hala ere, eskoletan eta lantegietan normaltasuna izan da nagusi; zonalde menditsuetan izan dituzte arazo handienak.

DATUA

**–1ºC**

**TENPERATURA**

**Elurrarekin batera, hotz handia izan dugu egunotan ibarrean. Termometroek zero azpiko tenperatutak markatu dute, atzo, esaterako.**

**EGURALDIA, HOBERA**

Elur-kota, hasieran, 200-300 metro inguruan kokatuko da, egunak aurrera egin ahala igotzen joango da eta egunaren amaieran 700 metrotan kokatuko da. Izotza nonahi botako du berriro gaur. Bihar, zapatua, eguraldiak hobera egingo du. Dena dela, goizean hodei ugari egongo da eta hanhemenka euria egin dezake. Elurkota goizean goiz 700-800 m inguruan kokatuko da. 2-7ºC bitarteko tenperatura izango dugu.

> ARANTZAZU

### Aizkorri-Aratzeko harrera zentroa Diputazioak egingo du

Aizkorri-Aratz parkeko natura baliabideak antolatzeko planaren barruan, parke naturalera doan jendeari harrera egiteko parketxe bat eraikitzea komenigarritzat jo dute. Bisitariei zuzendutako harrera zentroa egiteko lanak Diputazioak finantzatuko ditu. Hain zuzen ere, Diputatuen Kontseiluak onartu du 1.500.000 euro bideratzea lan horiek finantzatzako. Harrera zentroen helburua da bisitariak parkeen natura eta kultura alorreko balioetara hurbiltzea, betiere ordenarekin eta segurtasunarekin.

> HITZARMENA

### Aita Mennin geldialdiekin jarraituko dute

Aita Menni ospitaleko enpresa batzordeak mobilizazioak deitu ditu datozen egunotarako. Hamar hilabete daramatzate negoziaketetan eta oraindik ez dute akordiorik lortu 2008ko enpresa hitzarmenerako. Gauzak horrela, "zuzendaritzaren jarrera itxiaren aurrean" eta Gabonetako geldialdiei jarraipena emanez, mobilizazioekin jarraituko dute hilaren 12tik 22ra eta urtarrilaren 26tik 30era. Komiteak orain arteko mobilizazioen balorazio arrakastatsua egin du. Jarraipena %95ekoa izan dela diote batzordeko iturriek.

**JENDARTEA** > ERROLDA

# Populazioa gora ibarrean eta behera Arrasaten eta Bergaran

Gipuzkoan biztanleriak nabarmen egin du gora; Aretxabaletak 87 biztanle irabazi ditu

**A. BARRUSO/E. MENDIBIL** > BERGARA

Gipuzkoan, orokorrean, biztanleriak nabarmen egin du gora. 2008ko urtarrilari dagozkion datuak argitaratu berri ditu Espainiako Estatistikako Institutu Nazionalak. Horien arabera, herri gehienek gorako joera izan duten biztanleriari dagokionean. Hala ere, bada salbuespenik, eta gure ibarrean Arrasate, Bergara eta Elgetak beherakada izan dute. Gipuzkoan 11 udalerri bakarrik izan dira biztanleria galdu dutenak, eta horietako hiru Debagoienekoak dira, beraz.

**ARETXABALETAREN GORAKADA**

Arrasatek, esaterako, 142 biztanle galdu ditu 2007 urtearekiko; Bergarak 77 gutxiago ditu eta Elgetak, azkenik, biztanle bakarra galdu du 2007 urtearekiko. Gainontzeko ibarreko herrietan joera goranzkoa izan da. Leintz Gatzagak 13 biztanle gehiago ditu; Antzuolak, 34; Oñatik, 60 biztanle irabazi ditu; eta Eskoriatzak, 73. INEren datuen arabera, Aretxabaleta izan da gorakada handiena izan duena iaz 87 pertsona gehiago erroldatu baitziren Aretxabaletan.

### Debagoiena, herriz herri*

| HERRIA | 2007 | 2008 | JOERA |
|---|---|---|---|
| ANTZUOLA | 2.121 | 2.145 | + 34 |
| ARETXABALETA | 6.559 | 6.646 | + 87 |
| ARRASATE | 22.116 | 21.974 | - 142 |
| BERGARA | 14.823 | 14.746 | - 77 |
| ELGETA | 1.051 | 1.050 | - 1 |
| ESKORIATZA | 3.958 | 4.071 | + 73 |
| LEINTZ GATZAGA | 250 | 263 | + 13 |
| OÑATI | 10.756 | 10.816 | + 60 |
| **GUZTIRA** | **61.634** | **61.711** | **+ 77** |

*Aramaioko datuak ez daude. Iturria: INE



GOIENKARIA

### Kooperatibismoa zabaltzeko hitzarmena

Mondragon Unibertsitateak eta Diputazioak Debagoienean hezkuntza, kultura eta politika publikoen arloetan kooperatibismoa zabaltzeko hitzarmena sinatu dute. Ondorioz, Mondragon Unibertsitateak, Lanki ikertegiaren bidez, hainbat arlo landuko ditu berrikuntza soziala, hezkuntza, kooperatiben indartzea eta politika publikoen esparruetara balio kooperatiboak eramateko

# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK

## AKUPUNTURA
**INTEGU**
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34
**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13
**LORENZO M. JOOSTEN**
Arrasate / Arrasate Pasealekua 29, Ezk behea / 943 79 29 13

## ALBAITARIAK
**ETXEBERRIA JULIO (DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)**
Bergara / 609 54 16 13

## ANALISI KLINIKOAK
**LABORRA ISABEL**
Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## BARNE MEDIKUNTZA
**IRIGOIEN VICTOR**
Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## DENTISTAK
**AGIRRE HORTZ KLINIKA**
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23
**ARANBURU HORTZ KLINIKA**
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46
**ARRASATE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23
**ARREGI HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Zerkaosteta 19, behea / 943 79 71 90
**ASTIAZARAN SOLOZABAL**
Bergara / Iparragirre 1, behea / 943 76 27 95
**BENGOA SAN MIGUEL ANGEL**
Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57
**BERGARA HORTZ KLINIKA**
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77
**CAVIGLIA SILVANA**
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54
**GOROSABEL J. ALBERTO**
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88
**IRIARTE IRURETA ANE MAITE**
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45
**IRIARTE IDOIA**
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
**LOPEZ DE GOIKOETXEA**
Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74
**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36
**SAINZ MALKORRA ANA**
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA
**TAMAYO CONCEPCION**
Oñati / Atzeko kalea 6, behea / 620 124 843 / 943 71 61 82

## ENTZUMEN ZENTROAK
**INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68
**ITZIAR UGARTE OPTIKA - AMPLIFON**
Arrasate / Arrasate Pasealekua 35-37 / 943 08 26 87

## ERREUMATOLOGIA
**GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA**
**TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA**
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## FISIOTERAPEUTAK
**ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA**
Arrasate / Garibai etorbidea 6B / 943 77 03 96
**ARZAK MIREN**
Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71
**BASTERRETXEA MARIA**
Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71

## HOMEOPATIA
**AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11 / 943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA
**LARRAÑAGA ANDREA**
Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA
**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK
**ABUIN JOSE LUIS**
Arrasate / San Josepe 10, behea D – Kiroldegian
Arrasate / Mendia Jauregia.
943 77 01 33 / 943 77 16 77
**ARANTZETA JUAN MARI**
Elgeta / Salbador 28 / 943 76 80 54
**AZPEITIA IRUNE**
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43
**ELORTONDO FLOREN**
Aretxabaleta / Basabe industrialdea D, z/g / 629 77 85 84
**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## OPTIKAK
**ARRASATE OPTIKA**
Arrasate / Kontzezino 6 / 943 79 25 98
**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21
**INSTITUTO OPTICO**
Arrasate / Kale Barria 32 / 943 79 71 68
**ITZIAR OPTIKA**
Oñati / Kale Barria 32 / 943 71 82 88
**ITZIAR UGARTE OPTIKA**
Arrasate / Arrasate Pasealekua 35-37 / 943 08 26 87
**PORTALOI OPTIKA**
Arrasate / Erdiko kalea 10 / 943 79 65 56

## ORTOPEDIA
**ORTO LAGUN**
Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK
**UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)**
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA
**BENGOA NEREA**
Arrasate / Azoka kalea 4 / 659 58 66 89
**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## PODOLOGOAK
**AZPIAZU ARANTZAZU**
Bergara / Herri Lagunak z/g / 943 76 41 32
**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46
**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84
**OINEZ PODOLOGIA KLINIKA**
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKIATRA
**GALLASTEGI PABLO**
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

## PSIKOLOGOAK
**AGIRRE ENARA - PSIKOTERAPEUTA**
Antzuola / Olaran etxea 3, MA10 / 670 45 19 62
**GARMENDIA LANDER**
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86
**NUÑEZ TXOMIN**
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16
**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## UROLOGOAK
**LLUCH ALBERTO (UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA)**
Arrasate / Ferrerias 56 / 943 79 44 22

## YOGA
**AREDHANA YOGA ETA GESTALT PSIKOTERAPIA ZENTROA**
Aretxabaleta / Santa Kurtz 24 / 616 96 57 95.
**SAMADHI YOGA**
Bergara / Masterreka 13, behea / 943 76 11 38 / 639 235 753

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

## Gora, Danbaka eta gure musika taldeak!

**Mikel Etxeberria**
Arrasate

Flipatu egin dut Danbaka Musika Lehiaketarekin aurten. Sekulako maila erakutsi dute talde guztiek, orain arte egin diren beste bi edizioetakoak nabarmen gaindituz. Antolaketa, beti bezala, bikaina izan da eta oso gustura jarraitu ditut GOITBn eman diren kontzertuak. Aurten, sekula baino hobeto entzuten da, gainera, taldeen musika telebistatik. Bereziki gustatu zait Gabonetan ikusi dudana; hau da, talde guztien abesti banarekin egindako saioa. Horrek eman digu aurten Danbaka izan denaren ideia garbia eta erakutsi digu taldeen maila bikaina.

Bestalde, lerro hauek idatzi nahi ditut zorte onena opatzeko finalista geratu direnei eta kanpoan geratu direnei ere animuak emateko. *Danbaka.com* webgunean (oso ona, portzierto, eta baita bikaina *Youtube-n* sortu den gunea) irakurri ahal izan dut hainbat jende ez dagoela finalisten aukeraketarekin gustura; edo, hobeto esanda, Adi Holden finalerako sailkatu izanarekin kritiko agertu direla, epaimahaiaren erabakiarekin kritiko. Nik animuak eman nahi dizkiet Adi Holdenekoei eta, bestalde, esan nahi dut epaimahaiak aurten oso zaila izan duela eta seguru ere zaila izango duela finalean, irabazlea aukeratzeko. Epaimahaikide izatea ez da batere erraza.

Gora, Danbaka; gora, gure musika taldeak eta jarrai dezatela urte askotan! A, ia ahaztu egin zait: aurtengo Danbakarako ateratako kamisetak ere oso politak, eta baita eszenografia ere. Horretan, berriro asmatu du Danbakak.

## San Silvestre: korrikalariak autoen artetik

**Miren Plazaola**
Oñati

Urte amaieran, San Silvestre karrera famatua egiten denez gure herrian, balkoian jarri eta karrera ikusteko gogoarekin egon naiz.

Hasi da karrera, eta korrikalariak pasatzen diren bitartean, zein den nire harridura, euren artean autoak ikustean, eta ez korrikalariak saihesten, baizik eta korrikalariak eurak autoak saihestu behar.

Lotsagarria iruditzen zait gidari batzuen aldetik, karrera bat dagoenean ez errespetatzea anbulantzia noiz pasako autoak mugitzeko. Santa Marinako bidegurutzea oso arriskutsua iruditu zait korrikalarientzat. Askotan bakarka doaz eta Moiua kalean gora Errekalderantz abiatuta, autoek aurreratzen dituzte korrikalarien segurtasuna kolokan jarriz. Nire ustez, bidegurutze bakoitzean pertsona bat egon beharko litzateke autoei bidea moztuaz, txirrindulari probak egiten diren moduan; zergatik korrikalarien probetan ez?

## Aittor Arantzabal eta Mikel Garaiondo

**Jose Ramon Kortabarria**
Bergara

GOIENKARIAko 2008ko Bergara aldeko *Urtekaria* hartu nuenean, zuzenean otsailera joan nintzen, bergarar bi hauen atxiloketa eta kartzelaratzea ze egunetan izan zen jakiteko neure dudak nituelako. Ez nengoen seguru 11n ala 12an izan zen. Dudak kendu beharrean, kriston haserrea harrapatu nuen. Jo hona eta jo hara, ez nuen inongo aipamenik ikusi. Nola liteke bi herritar abertzale eta ezkertiar politika egiteagatik atxilotu eta espetxeratu, eta inongo aipamenik ez egitea herrian eta eskualdean herritarrongandik gertuen dagoen komunikabideak. Kontuan izanda, gainera, eskualde honetan ezker abertzaleak duen indarra (ez dela lagun talde bat).

Plazako baranda errotik atera zuten, epaitegiari eraso, Sarkozy eta Bruni ezkondu, Usondoko parkeko komuna konpondu eta abar luze bat, baina Aittor eta Mikel? Ahaztea? Ez da posible. Nahita ahaztea? Ez da posible. Datu hori ez jasotzea? Ez da posible. Norbaitek erabaki du datu hori isiltzea? Posible da. Zuek esango duzue zer gertatu den. Oker ez banago, 2008ko otsailaren 11ko gauean gertatu zen.

## Eskerrik asko, zuen laguntzagatik

**Jose Lazkano**
(Bergarako Etxerat-en izenean)
Bergara

Eskerrik asko euskal presoen izenean Gabonetan egiten dugun ekintza-kanpainan gurekin bat egin duzuen guztioi.

Asko izan zarete, urtero bezala, zuen elkartasuna bideratu duzuenok, dela ekitaldietan parte hartuz, dela ekarpen ekonomikoak eginez. Hortaz, Bergarako herritarrei, dendariei eta beste guztiei, gure eta haien partetik, eskerrik asko.

## OHARRAK

### 'Urtekaria 08'

Abenduaren 26an banatu zen Bergara, Antzuola eta Elgetako *Urtekarian*, 2008. urteari begiratua egiten zitzaion horretan, Bergarako albiste bat ez genuen sartu, pasa egin zitzaigun: Aittor Arantzabal eta Mikel Garaiondo bergararren atxiloketa eta kartzelaratzea. Otsailaren 11n izan ziren atxiloketa horiek. Euskal Herrian, guztira, ezker abertzaleko 14 kide atxilotu zituen Espainiako Poliziak eta horietatik, 11 kartzelaratzeko agindua eman zuen Garzon epaileak. Batasuneko Mahai Nazionala berregiteko "ahaleginean aritzea" eta, ondorioz, "ETAko kide edo laguntzaile izatea" egotzi zien epaileak. Bergarako udalbatzak, atxiloketa horien aurkako eta atxilotuak libre lagatzea eskatzeko mozioa onartu zuen. EAEk aurkeztu zuen mozioa eta EAJ, Aralar eta EAren aldeko botoak ere jaso zituen.

GOIENKARIAk barkamenak eskatu nahi dizkie irakurleei, Bergarako albisteen errepasoa egiterakoan kanpoan laga zelako; eta errua aitortzen du. Adierazi nahi du, bestalde, argi eta garbi, ez zela fede txarrez egin eta inork ez duela erabaki datu hori isiltzea.

### GOIENKARIA berritua

Aurrerantzean, *Asteleheneko Goienkaria* 40 orrialdekoa izango da; hau da, 8 orrialde gehiago izango ditu. Bereziki indartu egingo da herrietako informazioa. Urteko harpidetza kuota 40 euro izango da, *Asteleheneko Goienkaria* jasotzearren 44 astean, etxean edo harpidedunak adierazitako tokian.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

**Barrenkalea 33**
**20570 BERGARA**

**Telefonoa:**
**943 25 05 05**

**Faxa:**
**943 25 05 12**

**Posta elektronikoa:**
**goienkaria@goiena.com**

**Goienkaria**

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Edu Mendibil (Herriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredakzioa** Ubane Madera, Iker Barandiaran, Mirari Altube, Mirian Biteri, Larraitz Zeberio, Arritxu Barruso, Jasone Zabala, Mireia Bikuña, Arantzazu Ezkibel, Irati Agirreazaldegi, Oihana Elortza, Jokin Bereziartua, Nerea Menor **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Imanol Soriano, Kepa Oxel Arrieta **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Itxaso Berezibar, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

**EGOITZA NAGUSIA**

**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**

**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 p.k. • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com

**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50
Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210
**Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza · Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

AZKARATE AROZTEGIA

AROTZ LANETAN BEHAR DUZUN GUZTIA
Ateak
Leihoak
Horma-armairuak
Tarimak
Parket flotatzaileak
Sukaldeak

Telleria 19 B-0-2 B-0-3 // Bergara
Tel.: 943 76 47 19 // 610 88 40 20
www.goiena.net/blogak/azkarate



Enpresa arloko Toribio Echevarria sarietan, Enpresa Asmoak izeneko atalean, sari teknologikoa Donostia eta Arrasateko Prosens enpresari eman zioten. Prosens enpresak makina-erreminta sektorerako sistema berritzaileak garatzen egiten du lan, eta, Mondragon Unibertsitateko doktore tesi batetik abiatutako proiektua izanik, bultzatzaileetako batekin izan gara.

**Endika Gandarias** > Mondragon Unibertsitatean irakasle eta ikertzailea

# "Makina-erreminta beste sektore asko baino hobeto eusten ari zaio krisiari"

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE

**Endika Gandarias durangarra orain dela bost urte sartu zen ikerkuntzaren eta berrikuntzaren munduan doktore tesiaren harira. Mikromekanizatuaren munduko beharrei erantzuna bilatzen hasi eta *Microm* monitorizazio sistema berritzailea asmatu zuen. Mondragon Unibertsitatearen, Ideko-IK4 zentro teknologikoaren eta Cardiffeko Unibertsitatearen arteko elkarlanetik irten da Toribio Echevarria saria lortu duen proiektua, beste lankide batzuekin partekatzen diharduena.**

**Toribio Echevarria saria garrantzitsua izan da, ezta?**

Bai, proiektu oso garrantzitsuak aurkeztu dira eta sariak orain arteko bidean jarraitzeko indarra eman digu, produktu berritzaile eta balio gehigarri handikoak sortzen. Sariak gure produktuen merkaturatzea erraztuko digula uste dut.

**Zertan datza Prosens enpresaren proiektua?**

Monitorizazio sistema berritzaileak merkaturatuko dituen egitasmoa da. Helburua da makina-erreminta sektoreko euskal enpresei eta Europakoei lehiakortasuna sendotzeko eta prozesu produktiboak hobeto ulertzeko baliabideak eskaintzea. Asmo horrekin *Microm* produktua merkaturatuko dugu 2009ko udarako.

**Makina-erreminta sektorerako sistema berritzaileak garatzen diharduzue. Zein berrikuntza behar ditu sektoreak?**

Gaur egungo makina-erremintaren munduak konplexutasun eta doitasun handiagoko eta tamaina txikiagoko piezei erantzuna emateko beharra du. Bestalde, garraioaren sektoreaz gain, osasun, bioteknologia, informazio sistema eta bestelako sektore batzuek azkenaldian euren piezen behar izanak areagotu dituzte. Azken hamarkadetan gozatu dugun lehiakortasun ekonomikoa desagertu egin da ekialdeko herrialdeen eta Asiaren etorrerarekin. Ezinbestekoa zaie gure enpresei euren lehiakortasuna hobetzea balio gehigarri handiko piezak sortuz. Horren adierazle dira monitorizazio arloan azken urteotan merkaturatutako laser sistema edo haztatze-zundak.

**Mondragon Unibertsitatetik abiatutako ideiarekin saria irabazi ez ezik, enpresa ere sortu duzue. Zertan diharduzue?**

Merkaturatuko dugun lehen produktuaren azken garapen eta balioztapenak egiten eta enpresaren antolakuntza, esplotazio modu eta bestelako lanetan dihardugu. *Microm* sentsorearekin irtengo gara merkatura. Erremintaren eta piezaren arteko kontaktua era oso zehatz, fidagarri eta azkarrean antzemango du eta enpresetan onarpen oso ona izango duen ustea dugu. Beste hainbat funtzioren artean, makinen talken kalteak murriztea, erreminta apurketak antzematea eta neurketa eta mekanizazio eragiketak aldi berean egitea ahalbidetuko du, orain arte ezin zena.




Endika Gandariasek Protens proiektuko kideekin eskuratu du Toribio Echevarria saria. GOIENKARIA

PROSENS

**"Monitorizazio sistema berritzaileak merkaturatuko dituen egitasmoa da"**

LEHIA

**"Asiarekin eta Ekialdeko herrialdekin lehia ekonomikoa desagertu egin da"**

BERRIKUNTZA

**"Makina-erremintak orain dela bost urte heldu zion berrikuntzaren trenari"**

**Saria bultzada ekonomikoa ere bada zuendako. Krisi garaian berri ona da, ezta?**

Hasieran edozein laguntza eta errekonozimendu ondo etorria da, eta, krisi garaian, inoiz baino beharrezkoagoa da gure enpresei lehiakortasunean lagunduko dieten ekimenak bultzatzea.

**Bada pentsatzen duenik krisi garaian berrikuntzari baino beste kontu batzuei erreparatu behar zaiela gehiago.**

Enpresen errentagarritasuna beti buruan izan behar da, baina honek berrikuntzarekin ez du topo egiten. Mundu honek aurrera egiten dihardu etengabe eta krisi garaian berrikuntzaren aldeko apustu sendoa egiten duten enpresek epe ertainera oinarri sendoagoak izango dituzte.

**Zertan bereizten da gure merkatua beste batzuetatik?**

Makina-erremintaren sektoreak berrikuntzaren trenari heldu zion orain dela bost urte, behar izanaren ondorioz. Orduan landatutako lehen haziak egun lehen fruituak ematen hasi dira eta krisiari beste sektore asko baino hobeto eusten ari zaio.

**Sektorean, oro har, azken urteotan egin diren berrikuntzarik nabarmenenak zeintzuk dira?**

Doitasun eta konplexutasun handiko piezei erantzuna emango dieten baliabide berriak azpimarratu behar dira. Esaterako, makinen granitozko oinarriak, buruetako tenperatura kontrolatzeko sistemak eta sentsoreak.

**Etorkizunean, teknologian, zerk izango du pisu handien?**

Orain arteko berrikuntzek piezen mekanizazioan parte hartzen duten aldagaiak ezagutzeko sistemak garatzera eraman gaitutze. Aurrera begira, mekanizatu nahi den pieza lortzeko denbora errealean lan baldintzak automatikoki egokituko dituzten sistemak garatuko dira.

**Zein dira etorkizuneko asmoak?**

Epe motzera Prosens proiektua sendotzea eta haren bideragarritasuna ziurtatzea. Europako herrialdeetara *Microm* produktua helaraztea izango da erronka nagusia. Aurrera begira, produktu berritzaile gehiago merkaturatuko ditugu eta gure harreman sarea mundu osora hedatzeko asmoa dugu.

**Ikasleei zer esango zenieke?**

Ikasketa teknikoez gain, aprobetxa ditzatela zeharkako ezagutzak berenganatzeko aukerak: hizkuntza, talde lana, lidergoa... Eta, nola ez, ekintzaile izatera animatu nahiko nituzke, esperientzia interesgarria izateaz gain asebetetasun handia eskaintzen baitu.


FINALA
ELGETAKO KAFE ANTZOKIA
DANBAKA
III. MUSIKA LEHIAKETA
SARRERAK //
SALGAI DAUDE:
1> GOIENAKO EGOITZETAN
2 > 943 25 05 05 ZENBAKIAN
3 > ESPALOIA KAFE ANTZOKIAN
SARREREN SALNEURRIA 5 EURO // GAZTEKUTXAREKIN 3 EURO
KAMISETAK //
SALGAI DAUDE:
1> ESPALOIA KAFE ANTZOKIAN
2 > 943 25 05 05 ZENBAKIAN
KAMISETEN SALNEURRIA: 1> 12 EURO 2 > 22 EURO 3 > 30 EURO
INFORMAZIO GEHIAGORAKO WWW.DANBAKA.COM
urtarrilak
16
EGUBAKOITZA
22:30
ADI HOLDEN
BERGARA
THE WET BAND
MUTRIKU
NORMAN
EIBAR / ONDARROA
TALDE GONBIDATUA
PETTI & BANDA ELEKTRIKOA
LEHIAKETATIK KANPO
ETORRI KONTZERTURA ETA IRABAZ EZAZU SNOW OHOLA!
Emanaldiaren amaieran ezagutaraziko dira Danbaka lehiaketako irabazlea, Debagoieneko onena eta ikusleak aukeratutako talderik onena.
BABESLE NAGUSIA
gaztekutxa
LAGUNTZAILEA
MONDRAGON UNIBERTSITATEA
Gipuzkoako Foru Aldundia
Elgetako Udala
SHOT!
gaztelupeko HOTSAK
laino
LORAMENDI KIROLAK INTERSPORT
SEIN
anboto
ANTOLATZAILEAK
Goiena
espaloia

# Herriak

**Arrasate** > 12-13 **Bergara** >14-15 **Oñati** > 16 **Aretxabaleta** > 18
**Eskoriatza** > 19 **Antzuola** > 20 **Elgeta** > 21 **Aramaio** > 22 **Leintz Gatzaga** > 23



**> ARRASATE**
Gobernuaren dirulaguntza, Aldai eta Santa Marinarako **> 12**



**> BERGARA**
San Pedro kalea urtarril amaierarako bukatuta **> 14**




**> ARETXABALETA**
Zine Ekologikoa urtarrileko hiru eguaztenetan Arkupen **> 18**

**> ESKORIATZA**
Oposizioak atzera bota du gobernuaren aurrekontua **> 19**

**BERGARA** > AZPIEGITURAK

# Asteon hasi berri dira Bergarako kanpoko igerilekuko lanekin

**MAIATZA**
Udarako dena prest egotea gura dute; maiatzaren 29a da lanak amaitzeko epea

**ITXIERA SISTEMA**
Etorkizunean igerilekua estaltzea posible egingo duen sistema jarriko dute



Agorrosingo berdegunean eguaztenean hasi ziren lanean; eguraldia ez zuten lagun izan. A.E.

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA
Eguaztenean hasi zituzten Bergarako kanpoko igerilekuko lanak; eta, dena ondo badoa, maiatzaren 29rako bukatuta egon beharko dute lanok. Hori da Martin Etxeberria Bergarako kirol zinegotziak esan diguna. Eguraldi ona egitea ezinbestekoa da lanak aurrera erameteko; hortaz, eguazteneko eguraldia ez zen aproposena izan lanokin hasteko. Batez ere hondeatze lanetan garrantzitsua da eguraldi txarrik ez egitea.

Gaur egun berdegunea dagoen tokian egingo da 380 metro koadroko igerilekua. Esan behar da igerilekuak lau gune izango dituela: hiru jolasguneak izango dira eta beste bat igeri egiteko gunea. Igerilekuak zortzi kaleko igerileku baten tamaina izango du.

**JOLASA ETA KIROLA**
Lehenengo jolaslekuan sei metro garaierako txirrista egongo da. Bigarren jolas lekuak sakonera txikia izango du eta ume txikientzat izango da. Gune horretan ere txirrista bat egongo da. Hirugarren gunea ur azkarretan jolasteko ibai antzerako bat izango da. Laugarren gunea, erdiko gunea, igeri egiteko aproposa izango da. 1,20 eta 1,40 metroko sakonera izango du igerilekuak toki horretan.

Lanek ez dute barruko igerilekuko egunerokotasunean eraginik izango, eta gaur egungo martxarekin jarraitu ahal izango dela azaldu digu Etxeberria zinegotziak.

**ESTALTZEKO OINARRIAK**
Etorkizunean kanpoko igerilekua estaltzeko aukera aurreikusi dute Udaleko eta kiroldegiko arduradunek, eta horren araberako proiektua egin du Antzibar enpresak. Izan ere, beste herri batzuetako igerilekuak aztertu dituzte eta konturatu dira etorkizunean estaltzen hastea oso zaila dela. Etxeberriak hauxe dio: "Ez baduzu dena prest uzten estaltzeko, gerora oso zaila da estaltzea; hortaz, dena prest utziko dugu egunen batean estali gura bada modu samurrean egiteko".

Bergarako Udalak, inbertsioaren garrantzia kontuan hartuta, ahalik eta etekin handiena atera gura dio lanari. Hala, igerilekua estaltzeko itxiera sistema izango du igerilekuak. "Igerilekuaren aldamenetan jarriko dituzte zutabeak", azaldu du Etxeberriak. Zutabeek honoko neurriak izango dituzte: bost metro garai, 5,4 metro zabal eta 35 metro luze. Zutabe horien gainean errailak egongo lirateke, igerilekua estaltzeko plakak desplazatzeko; eta alboak ere tapatu egingo dira. Modu horretan, gaur egungo eraikinaren fatxadara iritsi ahal izango da estalkia.

**DATUA**

**1.688.000**
**EURO**

Aurrekontua hasieran uste zena baino txikiagoa izango da. Lanak 2.521.000 eurotan atera zituen enkantera Udalak; azkenean, 1.688.992 eurotan esleitu ditu.

**DUTXATIK PASA BEHARRA**
Kanpoko igerilekua 0,80 metroko garaiera izango duen hesi batek itxiko duen eremu barruan egongo da, eta igerilekutik hesira bitarteko tartean barruko igerilekuan dauden moduko baldosak egongo dira. Hesi hori puntu baten bakarrik egongo da zabalik, eta hortik pasa beharko dute berdegunetik igerilekura doazen guztiek. Pasabide horretan putzu bat eta dutxa egongo dira; modu horretan, guztiek busti beharko dute alde batetik bestera pasatzerakoan.

Bestalde, barruko eta kanpoko igerilekuak lotuta egongo dira; izan ere, barruko igerilekuko alboetako kristalak zabaltzeko aukera egongo da.

**BERDEGUNEA, ERRESPETATUTA**
Gaur egun 3.500 metro koadroko berdegunea du igerilekuak, eta lanen ondoren ere berdeguneak azalera bera izango du, baina beste era batera antolatuta. Ipintza futbol zelai osteko gunera eta saihesbide azpira hedatuko dute berdegunea edo solariuma.

Igerilekuak bi sarrera-irteera izango ditu: berdegunetik nagusia eta barruko igerilekutik bestea. Urtean zehar 800 erabiltzaile ditu Agorrosinek, eta udan 1.300 inguru izaten ditu.

## Abonuan ez dute aldaketarik egingo

Oraingoz ez dute abonuan aldaketarik egitea aurreikusi Udaleko ordezkariek. Aurrerantzean funtzionamendu bera izango du Agorrosinek bergararrentzat; baina ibarreko gainontzeko herrietako abonatuekin zer egin pentsatzen dabiltza. Adibide bezala, abonu mankomunatuak bi aukera eskaintzen ditu Arrasaten: gune bustia eta gune lehorra. Agorrosin kirolguneko bazkideek 18 euro ordaindu beharko dituzte hilero, orain arte bezala, bainuetxeko zerbitzua erabiltzeko aukerarekin. Bestalde, 15 euro ordaindu beharko dute bainuetxerik gabe. Bergaran dagoen hilerohilero ordaintzeko sistemarekin, urteko zenbait hiletan bazkide izateari uko egiteko aukera dauka Agorrosingo erabiltzaileak.

## zerbitzuak

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 10 | Español | Araba Etorb., 14 | 943 79 18 65 |
| Domeka, 11 | Ruiz | Nafarroa Etorb., 1 | 943 79 14 09 |
| Astelehena, 12 | Etxeberria | Zarugalde, 42 | 943 77 16 30 |
| Martitzena, 13 | Azkoaga | Ferrerias, 1 | 943 79 15 15 |
| Eguaztena, 14 | Azkoaga | Iturriotz, 17 | 943 79 79 99 |
| Eguena, 15 | Corcuera | Maisu Aranbarri | 943 79 22 26 |
| Egubakoitza, 16 | Irizar | Erguin, 11 | 943 79 12 39 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 10 | Estella | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| Domeka, 11 | Estella | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| Astelehena, 12 | Mozos | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |
| Martitzena, 13 | Urrutikoetxea | Oxirondo, 4 | 943 76 11 74 |
| Eguaztena, 14 | Zabala | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| Eguena, 15 | Guallar | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| Egubakoitza, 16 | Estella | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 10 | Barrenetxea | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| Domeka, 11 | Barrenetxea | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| Astelehena, 12 | Garate | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| Martitzena, 13 | Garate | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| Eguaztena, 14 | Juldain | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| Eguena, 15 | Juldain | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| Egubakoitza, 16 | Anduaga | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |

**ARETXABALETA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 10 | Juan Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Domeka, 11 | Juan Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Astelehena, 12 | Agirre | E. Gorosarri plaza (Esko) | 943 71 48 28 |
| Martitzena, 13 | Agirre | E. Gorosarri plaza (Esko) | 943 71 48 28 |
| Eguaztena, 14 | Agirre | E. Gorosarri plaza (Esko) | 943 71 48 28 |
| Eguena, 15 | Agirre | E. Gorosarri plaza (Esko) | 943 71 48 28 |
| Egubakoitza, 16 | Agirre | E. Gorosarri plaza (Esko) | 943 71 48 28 |

### TELEFONO JAKINGARRIAK

**((112))**
**SOS DEIAK**

**OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osakidetza (Larrialdia)....943 46 11 11
DYA (Antzuola)....943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi)....943 76 55 76
Suhiltzaileak....943 78 28 00
Ertzaintza....943 53 47 20
Osasun Etxeak
- Arrasateko ospitala....943 03 53 00
- Antzuola....943 76 62 23
- Aramaio....945 44 53 40
- Aretxabaleta....943 71 19 59
- Bergara....943 03 54 00
- Elgeta....943 03 54 00
- Eskoriatza....943 71 44 52
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 03 54 30

Udaltzaingoak
- Antzuola....943 76 62 46
- Arrasate....943 79 14 39
- Aretxabaleta....943 71 18 63
- Bergara....943 77 91 06
- Eskoriatza....943 71 44 07
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 04 11

**GARRAIOAK**

PESA....902 10 12 10
Taxiak
- Arrasate....943 79 12 22
- Aramaio....945 44 50 33
- Aretxabaleta....943 77 12 64
- Bergara....943 79 12 22
- Eskoriatza....943 71 40 59
- Oñati....943 78 03 65

**DEBAGOIENA**

Mankomunitatea....943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)....943 78 15 12
Nekazaritza ganbera....943 76 10 15
Zerga Bulegoa....943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak
- Arrasate....943 77 11 43
- Bergara....943 76 44 42
- Oñati....943 78 36 67

Kiroldegiak
- Aramaio....945 44 53 35
- Arrasate....943 77 16 77
- Aretxabaleta....943 71 26 28
- Bergara....943 76 56 41
- Elgeta....943 76 82 84
- Eskoriatza....943 71 53 28
- Oñati....943 71 63 75

Kultura Etxeak
- Antzuola....943 76 60 65
- Aramaio....945 44 53 74
- Arrasate....943 77 01 05
- Aretxabaleta....943 71 10 27
- Bergara....943 77 91 58
- Eskoriatza....943 71 46 88
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 03 53

Udalak
- Antzuola....943 76 62 46
- Aramaio....945 44 50 16
- Arrasate....943 79 09 00
- Aretxabaleta....943 71 18 62
- Bergara....943 77 91 00
- Elgeta....943 76 80 22
- Eskoriatza....943 71 44 07
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 04 11

### URBANOAK

**ARRASATE**

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea )**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea )**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35. IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obrero, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea )**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea )**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05. IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

**BERGARA**

**San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20 , 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**ARAMAIOKO AUTOBUSA**

| Arrasate | Aramaio | Gasteiz |
|---|---|---|
| 07:00 | 07:15 | 08:00 |
| 10:00 | 10:15** | |
| 11:00 | 11:15 | |
| 12:00 | 12:15** | 13:00 |
| 15:15 | 15:30 | 16:15 |
| 17:20 | 17:35 | |
| 18:30 | 18:45** | 19:30 |
| 19:00 | 19:15 | |
| 21:10 | 21:25** | |
| **Gasteiz** | **Aramaio** | **Arrasate** |
| | 07:50 | 08:05 |
| 08:30 | 09:00 | 09:15 |
| | 10:15 | 10:30 |
| | 11:15 | 11:30 |
| 13:10 | 13:45 | 14:10 |
| 16:20 | 17:00 | 17:20 |
| | 17:35 | 17:50 |
| | 19:15 | 19:30 |
| 19:30 | 20:10 | 20:25 |

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetakoendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

## eguraldia

### DEBAGOIENEAN



**Zapatua, 10**

Zapatuan eguraldiak hobera egingo du. Dena dela, goizean hodeiak egongo dira eta euria egin dezake. Arratsaldetik aurrera ostarteak.



**Domeka, 11**

Tenperaturak gora egingo du eta ostarteak nabarmenduko dira. Hego-ekialdeko haizeak joko du, indarrarekin leku garaietan.

### EUSKAL HERRIAN

Tenperatura baxua izango da, baina ostarteak zabalduko dira eta eguzkia izango da nagusi aspaldiko partez astean zehar. Tenperatura maximoa ez da zazpi gradutik igoko eta minimoa zero gradu inguruan izango da. Gau partean izotza bota dezake Euskal Herriko barrualdean.



### TENPERATURAK

**MINIMOA** Martitzena, 6 — **1 ºC**

**MAXIMOA** Eguena, 1 — **15 ºC**

**ASTEKO EURIA** (l/m²) — **36,3 L**

| | Max. | Min. | Euria |
|---|---|---|---|
| **Eguaztena, 31** | 15 ºC | 3 ºC | - l/m² |
| **Eguena, 1** | 15 ºC | 4 ºC | - l/m² |
| **Egubakoitza, 2** | 12 ºC | 8 ºC | - l/m² |
| **Zapatua, 3** | 12 ºC | 8 ºC | - l/m² |
| **Domeka, 4** | 8 ºC | 4 ºC | - l/m² |
| **Astelehena, 5** | 6 ºC | 4 ºC | 13,1 l/m² |
| **Martitzena, 6** | 2 ºC | 1 ºC | 23,2 l/m² |

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

### ILARGIA URTARRILA



| Ilbehera | Ilbete | Ilgora | Ilberri |
|---|---|---|---|
| **18** | **11** | **4** | **26** |

## oharrak eta deialdiak

ARRASATE

**> Nortasun Agiria egiteko aukera**

Nortasun Agiria egiteko aukera izango da urtarrilaren 27an eta 29an. Bi egunotan ere, norbera joatea derrigorrezkoa da. Txanda aldez aurretik hartu behar da, BAZen (943 25 20 00).

ARRASATE, ARETXABALETA

**> Sahararen aldeko produktuak batuko dituzte**

Nubi eta Iesbaa elkarteek V. Piztu Itxaropena elikagai bilketa kanpaina hasi dute. Arrasate eta Aretxabaletako zenbait dendatan honako produktuak batuko dituzte Tindoufera bidaltzeko: hegaluzea oliotan, sardinak oliotan, pasta, arroza, azukrea, lekaleak eta konpresak.

ARETXABALETA

**> Psikoterapia, meditazioa eta yoga**

Honako ikastaroak eta tailerrak emango ditu Aretxabaletako Yoga eta Psikoterapia Taldeak urtarrilean: psikoterapia eta norbere buruaren garapena, eguaztenetan, 19:30ean; meditazio eta thailandiar masajea, hilaren 17an, 10:00-14:00; eta yoga eta norbere hazkuntza, urtarrilaren 10ean hasita, 10:00-14:00. Argibideak: 616 96 57 95.

BERGARA

**> Patchwork eta antzerki ikastaroak, aukeran**

Bergarako Udalak patchwork eta antzerki tailerrak antolatu ditu, urtarriletik martxora. Izenematea zabalik dago kultura etxean.

BERGARA

**> Urteko lehen odol ateratzea hilaren 21ean**

Bergarako Odol Emaileen Elkarteak aditzera eman duenez, urteko lehen odol ateratzea urtarrilaren 21ean egingo dute, Seminarioko lokalean, 18:00etatik 20:30era.

ARRASATE

**> Inauterietako kartel lehiaketa**

Inauterietako kartel lehiaketara lanak aurkezteko epea urtarrilaren 30era arte izango da zabalik. Irabazleak 400 euroko saria jasoko du. Teknika librea erabili ahal izango da eta lan guztiek *2009 Inauteriak Arrasate* esaldia eraman beharko dute. Argibideak udaletxean, Kultura Zerbitzuan, 943 25 20 08 telefono zenbakian.

ARRASATE

**> Kilo bat angula irabazteko aukera**

Arrasate Pilota Taldeak kilo bat angula zozketatuko du Santa Ageda egunean, otsailaren 5ean. Txartelak euro baten truke daude salgai.

BERGARA

**> Langabeendako ikastaroak Miguel Altunan**

Miguel Altuna institutuak honako ikastaroak antolatu ditu: batetik, ebaketa eta jantzigintza (150 ordu); bestetik, office teknikari ikastaroa, 210 ordukoa. Langabezian dauden emakumeei, iraupen luzeko langabeei, lehen enplegu bila daudenei... zuzenduta daude. Argibideak 943 76 93 94 telefono zenbakian.

BERGARA

**> Batzokiko zozketan saritutako zenbakia**

Bergarako batzokiko zozketan 1.146 zenbakia izan da saritua. Txartelaren jabeak bi pertsonarendako asteburua talasoterapia zentro batean irabazi du.

ARRASATE

**> KZgunеko ikastaroak urte hasieran**

Arrasateko KZGuneak hamar ikastaro antolatu ditu urtarrilerako. Besteak beste, *Comprende y realiza una página web*; *El consumidor en la red*; *Curso de Administración*; edo *Comuníquese con proveedores y clientes mediante correo electrónico*. Argibideak: 943 79 35 54.

BERGARA

**> Euskal dantzen ikastaroak Jardunekin**

Jardun euskara elkarteak euskal dantzen ikastaroak antolatu ditu. Erromeriako dantzen ikastaroa otsailetik martxora izango da, martitzenetan, 19:30etik 20:30era; eta fandangoa eta arin-arina ikastekoa, urtarrilean hasiera mailan eta otsailetik maiatzera maila guztietan. Eskolak eguenetan, 19:30etik 21:00etara. Argibideak: 943 76 36 61.

BERGARA

**> Bergara KEren zozketako emaitza**

Bergara KEren Gabonetako zozketan 12.917 (lehen saria) eta 19.807 (bigarren saria) izan dira saritutako zenbakiak.

OÑATI

**> GPSa erabiltzen ikasteko oinarrizko ikastaroa gaztelekuan, hilaren 20an eta 22an**

Oñatiko gaztelekuak antolatuta GPSa erabiltzen ikasteko oinarrizko ikastaroa izango da urtarrilaren 20an (martitzena) eta 22an (eguena), 19:00etatik 21:00etara. Plaza mugatuak dira (hamabi lagun gehienez). 20 euro bazkideendako, 40 gainerakoendako. Argibideak 943 71 82 57 zenbakian.

**943 25 05 05**
**goienkaria@goiena.com**

kale inkesta

# Beherapen bereziak izango dituzue aurten dendetan?



**Koro Zabaleta**
Koro Zabaleta dendakoa
Arrasate

Aurten lehenago hasi gara beherapenekin; abenduaren 15ean hasi nintzen %30eko beherapenekin. Urtarril ondoren, beharbada, %40ra igoko dugu. Ondoren, ez dakigu zer gehiago egingo dugun.



**Jesus Mari Elkoro**
Elkoro Millar dendakoa
Arrasate

Guk beherapenak baharrean astebeteko eskaintza bereziak ipintzen ditugu. Artikulu zehatz batzuekin eskaintza bereziak egiten dira beherapen garai honetan. Datorren astean hasiko gara.



**Manolita Bengoetxea**
Gili-gili dendakoa
Arrasate

Beherapenak %50ean ipini ditugu arropa batzuetan, ez guztietan. Gabon jaietan ondo saldu dugu. Hiriburuetan lehenago hasten dira eta guk ere halaxe egin behar dugu saldu nahi baldin badugu.



**Mari Karmen Carrasco**
Ume dendakoa
Arrasate

Abenduan hasi ginen. Orain %30ko deskontuak egiten ari gara. Urtean zehar ez da askorik saldu eta genero asko dago dendan. Udaberriko arropa berrian %5eko deskontua egingo dugu.



**Maite Agirre**
Amagara estetika zentrokoa
Arrasate

Urtarril amaieran eskaintza berezia egin nahi dugu. Makina berri bat ekarriko dugu zentrora, besteak beste, gaztetze-tratamendu berriarekin. Erosleak zuhurrak izaten ari dira krisi garaian.

txistuak



GOIENKARIA

# Traste zaharrez beteta kalea Bergaran

Gabon jaien ostean, Bergaratik iritsi zaigu kexua. Kontua da Ikerleku kalean –Novedades zinema aretoko bidea– jendeak ohitura daukala traste zaharrak epea baino lehenago ateratzeko kalera. Martitzenetan batzen ditu Mankomunitateak traste horiek. Ondorioz, kalea trastez betetzen da eta egoera horrek asko oztopatzen du oinezkoendako bidea.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

asteko datua

# 61.711

Espainiako Estatistikako Institutu Nazionalak emandako datuen arabera, 61.711 biztanle dira gaur egun Debagoienean. Aretxabaletak izan du gorakada handiena: 87 biztanle gehiago. Arrasatek, Bergarak eta Elgetak behera egin dute aurreko urteko datuekiko.

usteak uste

Irati Agirreazaldegi

# Urte berrian ere zaharrak berri

Urte berri, asmo berri. Esaera bete denik gurean ez da igerri. Asmoak berriak edo zaharrak, baina txarrak. Urtezahar gauetik Urtebe-rri egunera bazen ondo pasatzeko aukera, baina egokia ote da batzuek dibertitzeko hautatu zuten era? Antzuolan eta Elgetan urte berria loretan. Plazako lore ontziak lurrean Antzuolan eta Salbador kalekoak jasotzen Elgetan bazen nahiko lan. Herriko giroa loratzeko, landareei, gutxienez, errespeto; eta herritarren poltsikoei ere apur bat edukiz gero hobeto. Krisi garaian ez gaude-eta horrelakoak ordaintzeko.

Urte berriak gurean batera eta bestera ekarri du apurketa eran ordaina. Horrela jokatzeko tontotu egin gara, baina? Urtarrileko aldapari ea hartzen diogun pixkanaka tamaina, neurri txikian bada ere, behintzat krisiari aurre egiteko adina.

Krisia, urte berria izan arren zaharretik arrastaka dakargun karga astun bezain bizia. Astuna, denon gainetik dabilelako etxe batean eta bestean zer suma; eta bizia edo azkarra guztion atzetik datorrelako krisiaren indarra. Joan da urte zaharra eta hala ere betikoa esan beharra: Zer berri? Zaharrak berri.

5 galdera...

# Marian Ortiz

Eki-Lur parafarmaziakoa
Bergara

**1. Pasa berri dugun Gabon sasoian jendeak asko eta gaizki jaten du?**
Orokorrean bai. Gabonetan mahai inguruko ospakizunetan barneratzen diren kaloriak behar direnak baino askoz gehiago izaten dira. Alkoholdun edariak eta gozo gauzak ere gehiago jaten dira.

**2. Jaien ondoren jendea joaten da zuen dendara erremedio bila?**
Bai. Etortzen zaizkigun bezeroen artean badira Gabonetan hartu dituzten kiloak kendu nahian etortzen direnak. Beste batzuek gibela garbitzeko produktuak eskatzen dituzte, edo garbitzaile orokorrak. Drainatzaileak, garbitzaileak, gibela garbitzeko infusioak eta gantza erretzeko produktuak dira gehien saltzen direnak.

**3. Halako kasuetan, egindako gehiegikeria guztiak alde batera uzteko zer da gomendagarriena?**
Lehenik eta behin, gorputza garbitzeko garbitzaile bat hartuko genuke hamabost egunetan, behintzat. Horrek sistema digestiboari laguntzen dio: gibela, urdaila... Produktu horiekin dieta hipokalorikoa konbinatzea eta kirol pixka bat egitea ere komeni da, horrela gorputza barrutik eta kanpotik hobetzeko.

**4. Gero eta gehiago dira urte guztian zehar zaintzen direnak?**
Bai. Geroz eta jende gehiago dago egunean zehar eta zenbat jaten duenari arreta handiagoa jartzen diona. Janari osasungarri, ekologiko eta kalitatezkoak bilatzen dituzte.

**5. Zein izango litzateke dietarik gomendagarriena Gabonetan hartutako kaloria eta toxina guztiak alde batera uzteko?**
Lehen egun osoan pina bakarrik jatea gomendagarria izango litzateke. Ondorengo egunetan barazkiak. Ogia jatorduetan ikusi ere ez. Gozokiak eta kaloria asko dituzten jakiak, ahal dela, ekidin.



> UMEAK

### Ludoteka ibiltaria San Andresen izango da, bihar hasita

Bihar, zapatua, hasi eta urtarrila bukatu arteko zapatu guztietan, San Andres auzoko Bedoñabe Herri Eskolan izango da Txatxilipurdi elkartearen ludoteka ibiltaria. 3 eta 12 urte bitarteko umeei zuzendutako zerbitzua da hori, 11:00etatik 13:30era zabalik egongo dena. Eta iragarri dute, besteak beste, "musikaren inguruko ekintza ugari" egingo dituztela.

> ESKAINTZA

### Ardo ondua eta pintxoa euro baten truke, eguenetan

Kontsumo beherakadari aurre egiteko, Arrasateko hainbat tabernarik iragarri dute eguenero, 18:00etatik 21:00etara, ardo ondua eta pintxoa euro baten truke eskainiko dutela. Taberna hauetan: Monte, Hilarion, Amets, Lorategi, Dublin, Txoko eta Hotel Mondragon.

> GERTAKARIA

### Gazte bat hil da Gesalibarren, kamioi batek harrapatuta

Eguaztenean, 20 urteko gazte bat hil egin zen Gesalibar auzoan, ustez kamioi batek harrapatuta San Juan de Dios ospitale psikiatrikoaren barrutian. Ospitaleko gaixoa zen gaztea. Ertzaintza gertaera ikertzen dabil orain.

**KRISIA** > ESPAINIAKO GOBERNUAREN DIRULAGUNTZA

# Dirua Aldai eta Santa Marinarako gura dute

Espainiako Gobernuak ia lau milioi euroko dirulaguntza dauka Arrasateko Udalari bideratzeko

Udalak Aldaiko parkearen proiektua eta Santa Marina auzoarena aurkeztu ditu hori eskuratzeko



Santa Marina auzoa berriro urbanizatzeko lanak hasita daude, Galizia kalean. U.M.

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Krisiari aurre egiten laguntzeko, Madrilgo Gobernuak dirulaguntzak bideratu behar ditu Estatuko udaletara. Laguntza bereziak dira, obra publikoak eta enplegua sustatzeko erabili beharrekoak.

Bada, gurera etorrita, Espainiako Gobernuak jakinarazi du Arrasateko Udalari ia lau milioi euroko dirulaguntza tokatzen zaiola, baldin eta Udalak urtarrilaren amaiera baino lehen aurkezten badio eskaera, dirulaguntza inbertitzeko proiektu eta guzti.

**AURTEN HASI ETA BUKATU**

Eta dagoeneko eskaera egin ere egin du Udalak: Aldain parke berria egiteko eta Santa Marina auzoa berriro urbanizatzeko erabili gura dute Espainiako Gobernuaren dirulaguntza. Hala adierazi du Patxi Arburuak, Obra eta Zerbitzu Saileko arduradunak. Hark gaineratu du akaso beste proiekturen bat aurkezteko aukera ere baduela Arrasateko Udalak, baina oraindik hori zehazteke dutela. Dena den, esan du "listo" ibili beharko dutela, urtarrilaren amaiera baino lehen aurkeztu beharko dute-eta. Era berean, aditzera eman du Espainiako Gobernuak Arrasateko Udalaren proiektuak gauzatzeko baimena ematen badu, aurten hasi eta bukatu beharko dituztela, hori da-eta gobernu zentralak ipini duen baldintzetako bat. "Beraz, oso-oso bizkor ibili behar dugu kontu honekin. Guk aurkeztutako proiektuen gaineko erantzuna ere laster-laster jakinaraziko digutela pentsatzen dugu. Zenbait udaletan hasi dira dagoeneko erantzunak jasotzen", dio Obra Saileko arduradunak.

**LAPURRETAK**

# Bi atxilotu, lapurreta ahalegina egitearren

Xaramela eta Zeppelin tabernetan ibili dira lapurrak oraingo honetan

**U.M.** > ARRASATE

Eguazten goizaldean bi gazte atxilotu zituen Ertzaintzak Arrasateko taberna bitan lapurreta egiten ahalegintzearren. Lekukoek esandakoaren arabera, Arimazubi plazan dauden Xaramela eta Zeppelin tabernetan ahalegindu ziren lapurreta egiten. Hain justu, Xaramelako pertsiana eta ateak indarrez zabaldu zituzten.

**IHES EGITEN AHALEGINDU**

Herrizaingo Sailak emandako informazioaren arabera, goizaldeko laurak inguruan, 22 eta 33 urteko bi gizonezko atzeman zituzten taberna barruan, inguruko auzotar batek zaratak entzuten zebilen abisua eman eta gero. Bi gazteak atxilotu egin zituzten; hori bai, biak ala biak ahalegindu ziren poliziarengandik ihes egiten. Are gehiago, batek barra bat bota zion poliziari; eta besteak ihes egitea lortu zuen atxiloketaren unean, nahiz eta gerotxoago beste patruila batek atxilotu egin zuen. Epailearen esku geratu ziren biak.

oinesku
fisioterapia • podologia
Tel.: 943 77 07 89 Zarugalde 16 behea Arrasate
Eider Zabala Casteig (Kolg. Zenb.: 520)
Fisioterapia
Osteopatia
R.P.G. Errekuperazio postural globala
Idurre Osa Salegi (Kolg. Zenb.: 239)
Podologoa
Astelehenetik aurrera zabalik

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

S. CARRASCAL S.L.
Guk egindakoak:
- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak
Erakusketa berria
Ekutio kalea pab. 14-15
Uribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82

UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

ad Ibabe
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

**Bixente Pagoaga** > Baserritarra

# "Ez da traste zaharrak erakustea, kultura da tresnok gordetzen dutena"

**JON BEREZIBAR** > ARRASATE

**Itxura dotorea eta luxuzko gidaria izan du Santamas Komisiñuek Kulturaten ipini duen baserriko lanabesen erakusketan. Bixente Pagoaga arduratu da tresnen nondik norakoak azaltzeaz, eta pozik dago, erakusketa bera beretzat ere "abesgarria" izan delako. Gehien umeekin disfrutatu duela dio. Erakusketa hilaren 15era arte egongo da zabalik Kulturateko klaustroan.**

**Gustura bete dituzu gidari lanak?**

Oso aberasgarria izan dela iruditzen zait. Galbidean den kultura bat da erakusten dena, eta mantentzeko ahalegina egin behar da. Lan handia egin da eta Udalak bildutako tresnak jabeei erosteko ahalegina egin beharko luke. Erakusketaren asmoa ez da traste zaharrak erakustea erakustearren, kultura bat da tresnok erakusten dutena, eta gorde beharra dagoena, hain zuzen.

**Haur asko harritu ere egingo ziren.**

Zekorrei muturrean ipintzen zitzaien uztaiari batzuek *piercing* deitu zioten. Grazia eman zidan horrek. Asko gozatu dute txikienek.

**Eta ulertu egiten zuten?**

Ahal denik eta egokien azaltzen saiatu nintzen. Adibidez, azaltzen nien kutxan garia gordetzen zela eta baita ere kutxatxo txikiagoak edukitzen zituela aldamenean eta horietako batean gorde ohi zela diru apurra, egoten zenean. Horregatik deitzen zaio gaur egun ere *kutxa*, hain zuzen ere.

**"Udalak tresnok erosteko ahalegina egin beharko luke, kultura gordetzeko"**



Bixente Pagoaga, Mitarte Garai bere baserriaren aurrealdean. J.B.

**Eta zerbait igarri duzu faltan?**

Baserriko jarduera nagusienak jasota zeuden, baina, esate baterako, neurri batzuk falta ziren. Bazeuden anega erdiak, baina anega osoa falta zen, 42 kilokoa. Lakaria ere falta zen, eta beste neurri asko. Baina, lanabes aldetik, ia guztiak daude. Gaur egun, gainera, erakusketan daudenetik bat ere ez da erabiltzen baserrietan. Lehengo ehun lana, karda eta karrantxa, adibidez, oraindik ere egiten dira. Erakusketan, gainera, bazeuden erakusgai artile lan batzuk eta gizon batek esan zidan horiek erositakoak zirela, eta nik ezetz. Baserrietan oso lan finak egiten ziren. Baserritarrek ez dute zertan lan horietan trauskilak izan.

> ERRUGBI TALDEA

## Bazkide laguntzaile egiteko kanpaina hasi dute

Seniorrek gaur jokatuko dute Mojategin Elorrioren aurka eta bihar neskek Iruñean dute partidua, La Unicaren aurka.

Partiduez gain, bazkide laguntzaile kanpaina abiatu dute Arrasate Rugby Taldekoek. Txartelak 8 euro balio du eta norgehiagoka guztiak doan ikusteko aukera ematen du bazkide laguntzaile izateak. Aurten, gainera, seniorren eta nesken partiduen atsedenaldietan opariak zozkatuko dituzte bazkideen artean.

> ZIKLOTURISTAK

## Lizentziak egiteko epea zabaldu du Debagoiena taldeak

Debagoiena zikloturista taldeak urteroko lizentzia epea zabaldu du, haiek berritu eta baita partaide berriek lizentzia egin dezaten ere.

Urtarrileko zapatu guztietan egongo dira Ignazio Zuloaga 10ean daukaten bulegoan, 10:00etatik 14:00etara.

Horrez gainera, arropa erosteko zerrenda ere jarriko dute, eta nahik duenak egin ahalko du eskaera.

**KIROLA** > ARRASATE, SAN JUAN ETA 'BERRIA' TXAPELKETAK

# Herrien arteko txapelketak gaur eta bihar Uarkapen

17:00etan hasita, kadete, gazte eta nagusien partiduak egongo dira gaur

**J.B.** > ARRASATE

Pilota-hitzorduz josita dator asteburua. 17:00etan hasita, benjamin eta alebinetan Arrasate txapelketa jokatuko da eta San Juan txapelketa benjamin, alebin eta infantiletan, bederatzi bikoterekin. Arrasate txapelketari dagokionez, herriko Murua eta Llodiok Azpeitiko bikotearen aurka jokatuko dute eta Murgiondo eta Etxezarretak Bergararen aurka. Horren ostean, sasoi bateko pilotariek euren txapelketaren partiduak egingo dituzte. Horietaz gain, *Berria* egunkariak antolatutako seigarren txapelketa da bihar Arrasaten. Arrasate eta Txaruta (Elizondo, Nafarroa) elkarteen arteko neurketarekin hasiko da. Hiru mailatako bikote banak jokatuko dute partidua (kadete-gazte-heldu).

# 15 urte, 1.500 ume eta makina bat sorpresa

Hamabosgarren urtez, itxi ditu jada ateak Txikilandia haurparkeak. Joandako domeka, hilaren 4a, izan zen egunik jendetsuena. Ur jolasak eta Txan Magoaren ikuskizunak ume eta guraso asko erakarri zituen Musakolako haur parkera. Guztira 1.500 bat neska-mutikok jardun dute aurten Txatxilipurdi elkarteak antolatutako parkean ekintzetan, jolasetan eta tailerretan. Antolatzaileak, beraz, pozarren.



MIREN ARREGI

BITTORI
ERRETEGIA
Eguneko menua - Kartako menua
Espezialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

UGARTE
Industria hornidurak
San Andres auzoa 2. 5-6 Pab.
Tel.: 943 - 71 21 41
Faxa: 943 - 71 21 40

BASATI TABERNA
943 711768



Batzoki aurrean dihardute azken zulatze lanak egiten galtzadarriak jarri aurretik. M.B.

**AZPIEGITURAK** > SAN PEDRO KALEA

# San Pedro kalea urtarril amaierarako bukatuta

Gabonetako oporraldiaren ostean, herenegun ekin zieten lanei; kalearen erdia adokinatzea falta da

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Eguaztenean ekin zieten berriz San Pedro kalea urbanizatzeko lanei; izan ere, Gabonetan geldi egon dira, Udalarekin eta dendariekin hala adostuta.

Lanok martxa onean doaz, eta, Udaletik jakinarazi dutenez, urtarril bukaerarako bukatuta egongo dira. Dagoeneko lanik handienak eginda daude; hau da, lur azpiko azpiegitura berritu egin dute. Horrekin batera, kale erdian galtzada-harriak jarrita daude. Zabalotegirako kalexkatik Ariznoa plazara arteko zatia dago egiteko.

Lanok Egaralur eta LSG Elektrizitatea enpresek egiten dihardute elkarlanean eta aurrekontua 644.785 euro da. Irail amaieran hasi ziren lanak eta ordutik izandako eguraldi txarra tarteko, atzerapen txiki bat baino ez dute izan, udal iturriek azaldu dutenez. Hala, 20 eguneko luzapena eskatu zion enpresa eraikitzaileak Udalari.

**ARIZNOA PLAZA**

San Pedro kaleko lanak egin aurretik, Artekalen eta Goenkalen jarri zituen galtzada-harriak Udalak, erdigunea oinezkoendako bihurtzeko ahaleginean. Orain, San Pedro eta Artekalea lotzea falta da; hau da, Ariznoa plazan galtzada-harriak jartzea.

**UDALA** > DEIALDIA

## Zabalotegi aretorako arduraduna behar du Udalak

**M.B.** > BERGARA

Zabalotegirako eta Udalak antolatutako bestelako kultura ekitaldietarako aldi baterako kultura arduraduna eta kultura ekintzetarako bi laguntzaile kontratatzeko deialdiak egin ditu Udalak.

Kultura arduradun posturako lehiaketa-oposizioan parte hartzeko, besteak beste baldintza hauek bete beharko dira: 16 urte beteta izatea, 3. hizkuntza eskakizuna edo baliokidea eta gidabaimena indarrean.

Kultura ekintzetarako laguntzaile lanpostuetarako baldintzak dira, besteak beste: 16 urte beteta izatea, 2. hizkuntza eskakizuna edo baliokidea eta gidabaimena indarrean.

Bietan ala bietan, instantziak aurkezteko azken eguna da urtarrilaren 16a. Instantziok alkateudalburuari zuzenduko zaizkio eta Udaleko erregistro nagusian aurkeztuko dira.

Informazio gehiagorako jo *www.bergara.net* helbidera.

> GAZTEAK

### Gazte informazio gunea ordubete goizago zabalduko dute zapatuetan aurrerantzean

Gazte informazio guneak ordutegia estreinatuko du urte berriarekin batera. Hain justu, zapatu goizetan ordubete lehenago zabalduko dute. Hala, honako ordutegia izango du: eguen eta egubakoitzetan, 16:00-20:00; eta zapatuetan, berriz, 09:00-13:00.

> IKASTAROA

### Oraindik ere izenematea zabalik dago Jardunek antolatutako dantza solte ikastaroan

Eskolak atzo, eguena, hasi baziren ere, Jardunetik jakinarazi dute oraindik ere izena emateko aukera dagoela fandango eta arinarin ikastaroan. Urtarrilean hastapen eskolak emango dituzte eta otsailetik maiatzera, maila guztiak. Eskolok eguenetan izango dira, 19:30ean, Ipintza institutuan. Argibideak: 943 76 36 61.

> ZOZKETA

### Bergarako Orfeoiko eta batzokiko Gabonetako zozketek ere badituzte irabazleak

Orfeoitik jakinarazi dute Gabonetako loterian saritua izan zen 08993 zenbakidun txartelak dituztenek dagoeneko jaso ahal dutela dirua San Martin plazako Kutxan. Batzokiko zozketan, berriz, asteburua talasoterapia zentro batean egokitu zaio 1.146 zenbakiari.

> TASAK

### Azokako eta azoka txikiko udal tasak ordaintzeko epea zabalik dago otsailaren 27ra arte

2008ko laugarren hiruhilabeteko tasen ordainagiriak ordaintzeko epea zabalik dago. Ordainketa egin daiteke udaletxeko diru-bilketa zerbitzuan, baimendutako finantza erakundeek egokitutako bulegoetan, kutxazainetan edo Internetez. Mugaeguna da otsailaren 27a.



GOIENKARIA

## Mariskadaren irabazlea: 1.919

Ezker abertzaleak abenduaren 24an urtero egiten duen marisko otzararen zenbaki irabazlea 1.919 izan zen. Irudian pozik ageri dira irabazleak otzararekin. Ezker abertzaletik eskerrak eman nahi dizkiete parte hartu zuten herritar guztiei.

Kayak Taberna
Gosari bereziak
09:00etatik zabalik!
• Afariak
• Plater konbinatuak
• Ogitartekoak
• Hanburgesak
• Sandwichak
• Entsaladak
Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

SANTOS
TIEN 21
DESKONTUAK
Renove plana etxetresnetan
Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

KONDE
PANADEROKUA

Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

FUTBOLA > BERGARA-ANTZUOLA

# Igoera eta mailari eustea, derbiko helburuak

Lehen itzuliko azken partidua jokatuko dute Bergarak eta Antzuolak bihar (15:45): lehenak sailkapeneko goiko aldean daude eta bigarrenak, zuloan


Jon Urteaga eta Ibai Azkarate, joan den denboraldiko partiduan. GOIENKARIA

JASONE ZABALA > BERGARA

Bihar derbia izango da Agorrosingo futbol zelaian (15:45); lehen itzuliko azken partidua izango da. Etxekoak, sailkapenean sendo daude lehenengo postuan (36 puntu) eta antzuolarrak, berriz, beheko aldean (13 puntu).

Derbiak, baina, beti izaten dira desberdinak; edozelan ere, esan beharra dago Manu Diazek entrenatzen duen taldea sasoi puntu ezin hobean dagoela txapelketako garai honetan. "Taldea ondo dago; lesionatuta egon diren jokalariak errekuperatu ditugu eta hori igarri egin du taldeak; aldagelan dagoen giroak ere laguntzen du. Antzuola beheko aldean egon arren, partidu zaila izango da; derbiak beti izaten dira desberdinak". Diazen ustez, orain daramaten puntu aldea– bigarren doan Zestoari bederatzi puntu ateratzen dizkiote– martxora arte mantentzen badute, faboritoak izan daitezke udaberrian preferente mailara igotzeko.

**BELDURRIK EZ BAINA ERRESPETUA**

Antzuola taldearen egoera, berriz, guztiz bestelakoa da. Igor Larreak eta Iban Unanuek zuzentzen duten taldea beheko zuloan dago sartuta, baina taldea ondo ikusten du Larreak: "Azken hiru partiduak talde indartsuen aurka jokatu ditugu– Mutriku, Ilintxa eta Lazkao– eta hiru berdinketa atera ditugu, garrantzitsuak guretako. Biharko derbia desberdina izango da. Bergara oso ondo jokatzen dabil eta horregatik dago lehen postuan, baina beldurrik gabe eta errespetu osoz saiatuko gara zerbait positiboa eramaten Agorrosinetik, mailari eusteko helburuarekin".

**BTLS, MUTRIKURA**

BTLS taldeak (19 puntu), bestalde, Mutrikuko taldeari (26 puntu) egingo dio bisita. Mutriku goian dago sailkapenean, eta aurkari zaila izango dute bergararrek.


Virginia Imaz, *Encantadas* antzezlaneko momentu batean. VIRGINIA IMAZ

ANTZERKIA > 'ENCANTADAS'

## Emakume eredu ezberdinak aztergai Virginia Imazekin

Aktore-klown-aren eskutik gaur, 22:30ean, Zabalotegin

J. Z. > BERGARA

Virginia Imaz aktoreak *Encantadas* antzezlana egingo du gaur Zabalotegi aretoan eta sarrera 5 euro izango da. Antzezlaneko protagonista Pauxa izeneko pailazoa da. Pauxak Loti Ederra dela uste du, eta, Printze Urdina azaltzen ez denez, 700 urtez lo egon ostean esnatu egin da. Antzezlan horrekin, Imaz aktoreak emakume ereduen inguruan hausnartzen du; Imazen ustez, antzezlanak gizarte kritika egiteko balio du.

**HAINBAT PROTAGONISTA**

Antzezlanean, Loti Ederra benetako maitasun muxuak esnatzen ez duen arte, haren sexualitatea lo dago. Egoera horrek Imazi aukera ematen dio beste protagonista batzuen egoera ere islatzeko; besteak beste, Sirenita maitemindu ondoren bere ahotsa galtzen du hanka batzuen ordez; eta Piel de Asno deiturikoak aitaren sexu gehiegikerietatik ihes egin nahi du.

> ERAKUSKETAK

### Domekara arte, urtarrilak 11, taila eta zeramika erakusketa

Bergarako taila elkartearen eta Buztinzale zeramika elkartearen eskutik, taila eta zeramikaz egindako piezen erakusketa dago Aroztegi aretoan etzira arte.

Erakusketa ikusi nahi duenarendako ordutegia ondorengoa izango da: gaur, egubakoitza, 18:00etatik 20:30era; zapatuan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domekan, 12:00etatik 14:00ak arte egongo da zabalik.

> ZINEMA EMANALDIAK

### Bost zinema emanaldi Zabalotegi aretoan asteburuan zehar

Zabalotegi aretoan zinema emanaldiak egongo dira ume eta helduendako.

Bihar, *Kung Fu Panda* umeendako saioa egongo da, 17:00etan. Helduendako bi saio egongo dira: *No es país para viejos* pelikula eskainiko dute, 19:30ean eta 22:30ean. Domekan, umeendako *Bee Movie* eskainiko dute, 17:00etan; eta helduendako, 19:30ean, *No es país para viejos*. Helduen sarrerak hiru euro balio du eta umeenak, berriz, bi euro.

DRAGON ORIENTAL Jatetxea
Etxera eramaten dugu
Zerbitzua Bergaran + 1,80 €
Osintxu, Antzuola edo Soraluzera + 2 €
943 25 06 77
Fraiskozuri plaza 7 (Frontoi parean)
BERGARA

ARRI
Industri hornidura
Latigilloak
Telleria 2, BERGARA
Tel.: 943 76 19 04
Faxa: 943 76 43 03
Sakelakoa: 656 78 64 84

GAZTELU, S. A.
BURDINDEGIA
HORNIDURA INDUSTRIALAK
Mintegi kalea 1
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 34 50 • 943 76 32 48
Faxa: 943 76 32 52
E-mail: gaztelu.s.a@euskalnet.net
Web: www.ferreteriagaztelu.com

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
Larrañaga
San Pedro, 9 - Telefono 761051
R.S.I. 209374 - SS
BERGARA

JAUJA KIROLAK
Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

Interesatuek udal bulegoetan aurkeztu behar dituzte eskaerak, hilaren 15a baino lehen, eta, deialdian zehaztutako irizpideen arabera, punturik gehien lortzen duen hautagaiari bost urteko kontratua egingo diote

**UDALA** > ALOKAIRURAKO DEIALDIA

# Herri Eskolako atezainaren etxea errentan emango dute

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Errekalde Herri Eskolan dagoen atezainaren etxea errentan ematea erabaki zuen Udalak abenduaren 18ko tokiko gobernu batzarrean. Horren harira, *Kontserjearena* bezala ezagutzen duten etxea alokairuan hartu gura dutenek hilaren 15a baino lehen aurkeztu behar dituzte eskaerak udal bulegoetan.

**HIRU BALDINTZA**

Deialdia egin baino urtebete lehenagotik Oñatin erroldatua egotea; jabetzan etxebizitzarik ez edukitzea; eta adinez nagusi izatea dira lehiaketan parte hartzeko bete beharreko baldintzak.

Bestalde, epaimahaiak hainbat irizpide hartuko ditu kontuan aukeraketa egiteko: alde batetik, euskaraz jakitea, garbitasun zerbitzuetan eta mantentze-lanetan egiaztaturiko esperientzia eta eskatzailearen formazioa. Besteak beste, Lanbide Heziketako erdi mailako modulua, lanerako prestakuntza ikastaroak eta lanbide hastapeneko tailer orduak baloratuko dituzte.

**EGIN BEHARREKO LANAK**

Herri Eskolako atezainaren etxea errentan hartzen duenak ez du hileroko errenta dirutan ordainduko; hain zuzen, ikastetxearen eraikinean maizterrak egin behar dituen lanen bidez ordainduko ditu. Egin beharreko lanak 400 eurotan finkatu dituzte udal arduradunek. Horregatik, egin beharko dituen lanetan formazioa eta esperientzia izatea baloratuko dute epaimahaiko kideek. Deialdian argitaratutako irizpide guztiak kontuan hartuta egingo dute zerrenda eta bost urteko kontratua egingo diote puntu gehien lortzen dituen hautagaiari. Eskatzaileen artean berdinketarik balego, egoera ekonomiko larrienean nor dagoen aztertuko lukete. Gizarte Ongizate Departamentuak emango luke egoeraran gaineko irizpena.




MIREIA BIKUÑA

## Gasteizko Cegasako langileek manifestazioa egin zuten Oñatin

Cegasako zuzendaritzak Gasteizko plantan kaleratu gura dituen 240 langileendako aurkeztu duen enplegu-erregulazioko espedientearen aurka protesta egiteko, Gasteizko eta Oñatiko lantegietako ehunka langile bildu ziren hilaren 3an Oñatin. Informazio-orriak banatu zituzten nonahi.

Zuzendaritzak dio 22 milioi euro galdu dituela eta Gasteizko planta mantentzea ez dela "errentagarria". Enpresako komiteko kide Juan Carlos Ramosek esan zuen ez daudela ados enpresak aurkeztutako galeren datuekin, urte osoan jasotako eskaerei erantzuteko lau txandatan lanean egon dira-eta.

**MUSIKA**

## Ganbara Txikik, urrezko garaikurra

**M.B.** > OÑATI

Aitor Biainek zuzentzen duen Ganbara Txiki abesbatzak urrezko garaikurra eskuratuzuen Errenteriako 62. Gabonetako lehiaketan, Arrasateko Goikobalu eta Errenteriako Orereta abesbatzekin batera. Abenduaren 27an jokatutako lehiaketan bederatzi talde lehiatu ziren; besteak beste, Tolosako, Errenteriako, Zumarragako, Lezoko eta Oñatiko abesbatzak. Katrin Iturraldek, Iñaki Tolaretxipik eta Jesus Mari Sagarnak osatu zuten epaimahaia.

**LEHEN LEHIAKETA**

Lehen aldiz lehiaketan parte hartu eta saria irabazi ondoren, beste hainbat proiektu dituzte esku artean Ganbara Txikikoek; besteak beste, Frantziara bidaia egingo dute eta hainbat kontzertu egingo dituzte Euskal Herrian.

Gizarte Zerbitzuetan emango dute zerbitzua astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 14:00etara

**ZERBITZUAK** > PENTSIOEN EGUNERATZEA

# Pentsioak eguneratzeko laguntza zerbitzua jarri du abian Udalak

**M.B.** > OÑATI

Pentsioak eguneratzeko aukera duten herritarrei informazioa eman, eta hala dagokien kasuetan tramiteak eta eskaerak egiteko langile bat jarri du Udalak. Zerbitzuaren beharra dutenek Bidebarrieta kaleko Gizarte Zerbitzuetara jo dezakete. "Astelehenetik egubakoitzera gaude bulegoan, 09:00etatik 14:00etara. Pentsioak eguneratzeko beharrezko informazioa eta laguntza emango diegu interesatuei", esan du zerbitzuko arduradun Jone Etxeberriak. Era berean, aldez aurretik ordua hartzea komeni dela esan du.

**GUTXIENEZ 700 EURO**

Eusko Jaurlaritzak onartu duen Pentsioak Osatzeko Legearen arabera, pentsio txikienak jasotzen dituzten herritarrek pentsioa osatzeko aukera izango dute. Horren harira, gutxienez 700 euro jaso ahalko dituzte hilero, hamabi ordainsari urtean.

Orain arte pertsona askok ez zuten pentsioa osatzeko eskubiderik, beste senide batzuekin bizi zirelako eta guztien diru-sarrerak kontuan hartzen zituztelako. Lege berriarekin gehiagok izango dute aukera pentsioa osatzeko, pentsiodunen errenta bakarrik hartuko dute-eta kontuan.

> DEIALDIA

### Inauteri herrikoia egiteko entsegua egingo dute bihar

Otsailaren 21ean ospatuko den Inauteri zapatuan festa herrikoia antolatzeko deialdia egin zuen Oñatz taldeak abenduan. Ordutik eguaztenero (20:00etan) eta zapaturo (12:00etan) elkartu ohi dira Errekaldeko lokalean dantza prestatzeko. Bihar, zapatua, entsegu berria egingo dute eguerdian. Dantza egin gura duten herritar guztiak gonbidatu gura dituzte.




## Aretxabaletan gai organikoa banatzen hasi gura dozu?

Aretxabaletako Udalak, Debagoieneko Mankomunitatea, GFA eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioarekin elkarlanean gai organikoak aparte jasotzeko esperientzia jarri zuen martxan Irailean.

Horretarako marroi koloreko edukiontziak ipini dira herrian. Edukiontzi hauek giltza bidez irekitzen dira eta erabili ahal izateko **ezinbestekoa da izena ematea**. Parte hartzen dutenei etxean gai organikoa banatzeko kuboa eta poltsa konpostagarriak banatuko zaizkie, sailkapena behar bezala egin ahal izateko.

Ekimen hau Gipuzkoako Udalerri batzuetan egingo den probako esperientziaren parte da. Zuk ere parte hartu nahi baduzu eta oraindik ez baduzu izenik eman, orain bigarren aukera bat duzu. Horretarako, hiru bide dituzu:

- Telefonoz: 943 08 10 01
- Posta elektronikoz: anabel@aretxabaleta.net
- Arkupe Kultur Etxera hurbilduz.

Izen emateko epea: **urtarrilaren 12tik 23ra.**

Aretxabaletako Udala

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

**INGURUMENA** > INGURUMEN HILABETEA

# Zine Ekologikoa antolatu du Udalak hausnarketa bultzatzeko

Hiru eguaztenetan (19:00) botako dituzte filmak eta ondoren eztabaidarako tartea sortuko dute

Ekologistak Martxan taldeko Iñaki Barcena, Carlos Alonso eta Martin Mantxo etorriko dira

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Ingurumen Hilabetea antolatu du Ingurumen Sailak gaurkotasuna duten hainbat gairen gaineko hausnarketa eta eztabaida sortzeko asmoarekin. Debagoieneko Mankomunitatearen eskutik *Birziklatuz sortu* izeneko erakusketa egongo da ikusgai hil osoan Arkupeko erakusketa aretoan eta Udalak Zine Ekologikoa antolatu du hiru eguaztenetan emateko (19:00).

**ZOR EKOLOGIKOA BERBAGAI**

Ingurumena gero eta garrantzi handiagoa duen gaia dela jakinik eta kezkatzen hasteko arrazoiak daudela uste izanik, eztabaidarako tartea sortu gura izan du Udalak herritarren artean. Hala, Ekologistak Martxan taldearekin harremanetan jarri eta Zine Ekologikoa eskainiko dute urtarrileko hiru eguaztenetan (19:00). Joxe Anjel Antxia zinegotziaren esanetan gai oso interesgarriak dira aukeratutako hirurak, ingurumenarekin ez ezik, etorkizunarekin eta bizi dugun krisiarekin zerikusi zuzena dutenak. Gaiaren sarrera egingo duten adituak etorriko dira hiru eguaztenetan, eta gaiaren gaineko filma ikusi ondoren, ikusleen artean sortutako eztabaida gidatuko dute.

Zor ekologikoari eskainitako bi film emanda hasiko dute zinema-foruma hilaren 14an eta Iñaki Barcena EHUko irakasle eta adituak jardungo du gaiaren inguruan. Gehiegikeriaz betetako gaur egungo gizarte, politika eta ekonomia ereduaren gaineko filma emango dute: *Nork nori zor?* Ekologistak Martxan taldeak berak ekoiztutako filma da, hain zuzen, eta euskaraz botako dute. Gaia osatzeko *Plantando carbono cosechamos miseria* filma ere emango dute.

**KLIMA ALDAKETA ETA PETROLIOA**

Urtarrilaren 21ean klima aldaketa izango dute berbagai Carlos Alonso aditua lagun, eta oraindik itxaropenerako biderik badagoela erakutsiko duen filma botako dute: *Reclaim Power*.

Urtarrilaren 28an, ostera, petrolioaren gaineko hausnarketa egingo dute Arkupen elkartutakoek Martin Mantxo kidearekin. Petrolioaren agortzea iritsi dela eta desagerpen horrek ekonomian eragingo dituen ondorio larrien berri emango du filmak: *Crudo despertar*.

**Zine Ekologikoa Egitaraua:**

**Urtarrilak 14 (19:00)**
Gaia: Zor ekologikoa
Filmak: *Nork nori zor* eta *Plantando carbono cosechamos miseria*
Hizlaria: Iñaki Barcena (euskaraz)

**Urtarrilak 21 (19:00)**
Gaia: Klima aldaketa
Filma: *Reclaim Power*
Hizlaria: Carlos Alonso

**Urtarrilak 28 (19:00)**
Gaia: Energia-Petrolioa
Filma: *Crudo despertar*
Hizlaria: Martin Mantxo (euskaraz)




Izurieta auzora bidean egiten dabiltzan zaharren egoitza. M.A.

**LANAK** > ZAHARREN EGOITZA

## Proiektua ikusgai dago alegazioak aurkezteko

Udaberrian zabalduko dute Izurietara bidean egiten dabiltzan zaharren egoitza berria

**M.A.** > ARETXABALETA

Izurietara bidean egiten dabiltzan zaharren egoitza berriaren lanak martxa onean doaz, Hirigintza Sailaren esanetan. Hala, RS Debagoiena Egoitza SL enpresak jarduera abian jartzeko baimen eskaera egin zuen, abenduaren 26ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarritakoaren arabera. Jarduera legeztatzeko proiektua ikusgai daukate orain udaletxean, eta jarduera horregatik kaltetuak izan daitezkeen herritarrek alegazioak aurkezteko aukera izango dute datozen egunetan. Hain zuzen, urtarrilaren 23a bitartean aurkeztu beharko dituzte alegazio horiek, eta proiektua ikusi gura izanez gero Hirigintza Sailera jo besterik ez dute interesatuek.

**UDABERRIAN ZABALTZEKO**

Alegaziorik egonez gero aztertu egin beharko dituzte, eta ondoren Aldundira bidaliko du proiektua Udalak. Aldundiak aldaketak proposa diezaioke proiektuari hobekuntzak egiteko, eta horiek egindakoan zabaltzeko baimena lortuko du RS Debagoiena Egoitza SL enpresak. Hirigintza teknikariak jakinarazi digu aurtengo udaberrian, martxo edo apirilean, zabaldu gura dutela Debagoieneko nagusiendako izango den egoitza berria.

**ZINEMA**

## 'High School Musical' eta James Bond aste bukaeran

**M.A.** > ARETXABALETA

Abenduan jarri zuten abian zinema, eta herritarrek harrera bikaina egin diote. Aste bukaeran paregabeko aukera dute akzioa gustuko dutenek, James Bonden azken filma emango dute-eta: *007 Quantum of solace*. Gaur eta bihar, zapatua, 22:00etan emango dute; domekan, 19:30ean; eta astelehenean, 16:00etan. 4 euro da sarrera.

Gaztetxoen artean arrakasta handia izan duen filma ere emango dute domekan (17:00): *High School Musical 3*. Sarrera 3 euro da.

Eta eguenean, hilak 15 (19:30), *Honeydripper* film amerikarra izango da zineklubean jatorrizko hizkuntzan; hau da, ingelesez. 2007an Donostiako Zinemaldian hartu zuen parte filmak.




M.A.

## Arrasatearrendako lehen postuak

Futbol eskola arteko Gabonetako txapelketa jokatu dute Ibarra futbol zelaian, abenduaren 23an hasi eta urtarrilaren 5a bitartean. Bigarren aldiz antolatu dute Debagoieneko futbol eskolen arteko txapelketa, eta Arrasate, Bergara, Oñati eta Aretxabaletako mutikoek jardun dute norgehiagokan: batetik, 1998an jaiotakoek; eta bestetik, 1999 eta 2000koek. Giro bikaina izan da txapelketan, eta, antolatzaileek sariari aparteko garrantzirik ez eman arren, arrasatearrak izan dira nagusi bi mailetan.

**LEHIAKETA** > ARATUSTEETAKO KARTELA

## Kartela hautatzeko lehiaketa abian da

Aratusteen berri emango duen kartela egiteko dei egin dute; lanak hilaren 23rako eroan behar dira Arkupera

**M.A.** > ARETXABALETA

Aratusteak iragarriko dituen kartela hautatu gura du Kultura Sailak, eta lehiaketa bidez egingo du, iaz legez. Otsailaren 22an ospatuko dugu Aratustedomeka, baina dagoeneko zabaldu du lanak aurkezteko epea eta urtarrilaren 23a bitartean eroan behar dira Arkupe kultura etxera. Lehiaketan edonork parte hartu ahal izango du, eta gura bezala egin ahal izango dira kartelak. Edozelan ere, baldintza batzuk bete beharko dituzte, hauexek: neurria 50x70 zentimetrokoa izango da, eta ordenagailuan eginez gero, DIN-A3an aurkez daiteke. Eta derrigorrez testu hau izan behar du: *Aratusteak Aretxabaleta 2009.*

Irabazleak 300 euro jasoko ditu. Eta egoki ikusiz gero, aurkeztutako kartel guztiekin erakusketa antolatuko du Kultura Sailak. Epaimahaia, Kultura batzordearekin batera, herriko hainbat lagunek osatuko dute, eta hartutako erabakia urtarrilaren 30ean jakinaraziko dute.

Iaz deitu zuen lehen aldiz Udalak Aratusteetako kartel lehiaketa eta orduan Haritz Larrinaga aretxabaletarraren lana saritu zuten.



Abenduaren 29ko osoko bilkuran aurrekontuaren gainean jardun zuen udalbatzarrak. MIRIAN BITERI

**UDALA** > 2009KO AURREKONTUAK

# Oposizioak atzera bota du gobernuak egindako aurrekontu orokorra

## Hilabete honetan proiektua sakonago aztertzeko konpromisoa hartu dute zinegotzi guztiek

**MIRIAN BITERI**> ESKORIATZA
Oposizioko taldeek atzera bota zuten datorren urterako udal gobernuak prestatutako aurrekontu orokorra, joan den abenduaren 29an. Osasun arazoak zirela medio, udal gobernuan dagoen Dorleta Lezeta zinegotziak ezin izan zuen osoko bilkuran parte hartu, eta EAJ, EA, PSE eta Ezker Batua-Berdeak taldeetako ordezkariak 2009ko aurrekontuak sakonago aztertu eta haiek estutzearen alde azaldu ziren egun hartan egindako osoko bilkuran.

Udalaren egoera ekonomiko txarra kontuan hartuta, aurkeztutako aurrekontu orokorra sinplea dela gogorarazi zien zinegotzi guztiei Pedro Lasagabaster alkateak. Bost milioi euro ingurukoa izatea da aurreikuspena. Gobernuaren asmoa da gastu arruntak ahalik eta gehien kontrolatzea. Oraindik zehazteke dauden inbertsioak egitea ere aurreikusi du; baina horiek aparte doaz. Espainiako gobernuak emandako 700.000 euro pasatxorekin egin nahi dira.

**TALDEEN IRITZIA**
Ezker Batua-Berdeak taldeko zinegotzi Juan Luis Merinok "aldebakarreko" aurrekontuak direla salatu zuen. Ez daudela ondo banatuta eta hainbat partida bertan behera utzi dituztela salatu zuen. Esaterako, gobernuz kanpoko erakundeek edo alderdi politikoek jasotzen dituztenak. Hortaz, partidaz partida proiektu osoa aztertu eta akordioak lortzearen alde agertu zen Merino.

EAJko Aitor Urrutiak "aukera handirik" ez dagoela eta irtenbidea topatzea samurra ez dela onartu bazuen ere, udal gobernuaren kontuak mahai gainean uztea ere eskatu zuen. EAko Karmelo Lezetaren arabera ere, aurrekontuak hobeto begiratu behar dira. PSEko Iñaki Pierrugues, bestetik, "arduratuta" agertu zen, udal gobernuak alderdi politikoen dirulaguntzak bertan behera uztea erabaki duelako: "Zinegotzien lan politikoa aintzat ez hartzea arduratzekoa da".

**ALKATEAREN HITZAK**
Horren harira, Lasagabasterrek erantzun zion Udalaren egoera ekonomikoagatik hartu dutela esandako erabakia: "Liberatuen soldatak izoztu eta zinegotzien laguntzak kendu nahi ditugu. Etsenpluaren bidez predikatu behar dugu".

Lasagabasterrek oposizioko taldeen jarrerarekin ez dela harritu azaldu zuen. Baina aurretik egin diren Hazienda batzordeetan seriotasun falta egon zela eta, ondorioz, urtarriletik aurrera egingo diren batzordetan gogoz jarduteko dei egin zuen. Ohartarazi zuen, aldi berean, aurrekontu orokorra ezin izango dela askorik aldatu, Udalaren egoera ekonomiko txarragatik baldintzatuta dagoelako.

Elizateetako ordezkari Leire Okaranzak, bestalde, ez zuen osoko bilkuran hitzik hartu.

### Gobernuaren aurrekontua, kapituluka

| Arloa | Kopurua eurotan |
|---|---|
| Hirigintza, Obra eta zerbitzuak, Ingurugiroa eta Elizateak | 1.886.197 |
| Hazienda eta enplegua | 707.217 |
| Gizarte Ongizatea, Drogomenpekotasuna, Emakumea eta Osasuna | 302.397 |
| Kultura, Euskara, Gazteria, Jaiak, Hezkuntza, Kirola eta Museoa | 1.579.724 |
| Administrazioa Orokorra | 409.844 |
| **GUZTIRA** | **4.885.381** |

Iturria: Eskoriatzako Udala

**GABONAK** > BALORAZIOA

# Oso harrera ona izan dute antolatutako ekimenek

## Gabon zahar eguneko martxa, Olentzero eta erregeak eta haur parkea egon dira

**M.B.** > ESKORIATZA
Eskoriatzako Udala oso pozik dago Gabonetan zehar egin diren ekimenek izandako harrerarekin. Ohikoa den moduan, umeekin lotutako ekimenak arrakastatsuak izan dira, hala nola Intxaurtxueta kiroldegian jarrita egon den haur parkea, Olentzeroren etorrera eta erregeen kabalgata.

Aurtengo egitarauan aurreikusita ez zegoen Gabon zaharreko *San Silbestradia* izeneko martxak ere herritarren interesa bereganatu du. Lehenengo aldia da horrelako martxa bat antolatzen dena herrian. Antolatzaileek azaldu dutenez, herritarrek hala eskatuta, abenduaren 27an hasi ziren esandako kirol ekimena antolatzen.

**60 KORRIKALARITIK GORA**
Guztira, 60 eta 70 lagun inguruk parte hartu zuten horretan, gehienak eskoriatzarrak. Zirkuitua plazatik irten eta herriko kaleetan 850 metro egin ostean, hasierara bueltatzen ziren korrikalariak, han zegoen-eta helmuga. Bost buelta eman behar izan zituzten.

Ekimenak izandako harrera ikusita, bigarren martxan pentsatzen hasi dira antolatzaileak: "Giro ona izan zen plazan; hurrengoa denbora luzeagoarekin antolatuko dugu. Dagoeneko ideiaren bat edo beste badugu; esaterako, haurrendako eta helduendako ibilbidea egitea".




Haur asko izan da kiroldegian jarri den haur parkean. M.B.

> MUSIKA

### Dagoeneko salgai daude urtarrilaren 30eko Benito Lertxundiren kontzerturako sarrerak

Jakina denez, urtarrilaren 30ean Benito Lertxundi abeslari oriotarrak kontzertua eskainiko du Eskoriatzan. Asteon, kantaldi horretarako sarrerak salgai jarri dira. Aldez aurretik eskura daitezke, hamahiru eurotan, honako tokietan: Eskoriatzan, Dorleta liburu dendan, Inkernun, Goxotxikin eta Igehiken; Aretxabaletan, kioskoan; Arrasaten, Monte tabernan; eta Oñatin, Turismo Bulegoan. Leihatilan bertan erosten duenak hamabost euro ordaindu beharko ditu sarrera bakoitzagatik.

> ERRETIRATUAK

### Abuztura bitartean bainuetxeetara joateko eskaerak aurkez daitezke urtarrilaren 16ra arte

Bainuetxeetan eskaintzen dituzten tratamendu termalak jasotzeko programan plaza eska dezakete erretiratuek eta, orokorrean, pentsiodunek. Urtarriletik abuztura arteko txandetarako, biak barne, urtarrilaren 16ra arte egin ahal izango dute esandako eskaera; iraileko txandetarako, berriz, maiatzaren 16ra arte.

Irteerak hamabi egunekoak izango dira. Horren gaineko informazio gehiago gura duena Imsersorekin edo Udaleko Gizarte Zerbitzuekin jar daiteke harremanetan.

**bere ustez**



Alaitz Jauregi

## Kriston bolia in dou!

Ohikua izaten da fetxa honek allegatzen dienian urteko balantze bat itxia, ezta? Ni konturatu naizena da urtian-urtian gauzak azkarregi aldatzen goiatzela, eta gizartia ez gaela preparauta honi danai aurre itxeko. Zertan, adibidez? "Urte gutxin barruan" danok lan itxera, norbere gastuak triplikatzera, preziuak zoratzekuak izatera pasau dia adibidez.

Honek ze dakar? Gu atzetik jarraitxu ezinda bizitzia: etxe bat erosteko loterixia tokau bihar, oporreta juteko kreditua eskatu bihar, kotxe bat erosteko beste bost saldu bihar, lan bat topatzeko mundu erdi zapaldu bihar...

**"Urtian-urtian gauzak aldatzen goiatz eta gizartia ez dao preparauta honi aurre itxeko"**

Krisisian sartu gala ta harritxu itxen ga? Hola bizitzia nahi du benetan? Nun laga ditxu lehengo baloriak? Gure umiak hazteko astirik be eztauku ta! Ezta gure etxia txukun eukitzeko be, ez eta umiak kalian lehen bezela gorde-gordeka jolasteko, ez luze pasiatzeko, etxian ezer ein barik egoteko…

Alkarri muturka alkar lagundu biharrian, ta dana itxota bizi galako! Ez dakitx noraino allegauko dan hau dana, baina pentzau deigun, neuregandik hasitxa, berandugi izen baino lehen benetan holako mundua nahi doun.

**JAIAK** > GABONAK

# Juan Antonio Lizarralde omentzeko kontzertua arrakastatsua izan zen

Gabonetako ekintzekin gustura dauden arren, Udaletik kezka azaldu dute urteko lehen egunean plazako lorontziak apurtuta agertu zirelako

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA

Gabon giroko ekitaldi ugari izan da Antzuolan: Olentzeroren etorrera, umeen parkea, pailazoak, Kepa Igartzaren ikus-entzunezkoa, argazki erakusketa... Udala gustura dago ekitaldiok izan duten erantzun onarekin. Arrakastatsuena izan zen Gabon kantuen kontzertua, Juan Antonio Lizarralde misiolari antzuolarra omentzeko egindakoa. Eliza leporaino bete zen, eta, antolatzaileen esanetan, oso ekitaldi hunkigarria izan zen. Antolatzaileek ez ezik, Lizarralderen senideek ere ekitaldira gerturatutakoei eskerrak eman zizkieten.



Adin guztietako jendeak hartu zuen parte Gabonetako kontzertuan. MARI PAZ UGALDE

**LORONTZIAK LURREAN**

Ekitaldiak arrakastatsuak izan eta Gabon giro polita sortu bada ere, izan da kezkatzeko arrazoirik. Urteberri egunean plazako lorontziak eta zuhaixkak hondatuta agertu ziren."Urteari ongietorria emateko modu kuriosoa dute baten batzuek. Gauak eta kontsumizio gehiegizkoak ematen dieten indarra aprobetxatuz, euren irriak sortzen dituzten ekintza tristeak egin zituzten", diote Udaletik. Ez da horrelakoak gertatzen diren lehen aldia, eta, herriko plaza txukun jartzeko gastua herritarrek ordaindu dutenez, Udaletik "hori guztia egin zutenei eragindako kalteak ordaintzera" gonbidatu dituzte.

**KIROLA** > OMENALDI PARTIDUAK

# Bergarako beteranoak irabazle Barkeroren omenezko partiduan

Neska-mutikoek areto futbol txapelketa jokatu zuten Gabonetan, Alfonso Castroren omenez

**I.A.** > ANTZUOLA

Hilaren 3an jokatu zuten Bergarako eta Antzuolako beteranoek Xabier Barkeroren omenezko partidua. Bergararrak 1-2 nagusitu ziren. 0-2 aurretik joan ziren bergararrak eta Mikel Jauregik penaltiz sartu zuen etxekoen gola.

Bestalde, Gabonetan, abenduaren 30ean, neska-mutikoek Alfonso Castroren omenez areto futbol txapelketako finalak jokatu zituzten. Nesketan Landatxotaldeak irabazi zuen; benjamin mailan Anaitasunak; eta alebinetan Txapeldunak taldeak.

> ELKARTASUNA

### Sahararako jatekoak eta konpresak jasotzen hasi dira

Herri Eskolak, Udalak eta Anelkar elkartasun taldeak bultzatuta, Saharako herriaren aldeko kanpaina ipini dute abian aste honetan. Urtarrilaren 20ra bitartean, Herri Eskolan, Eroski supermerkatuan, Kalebarren janari dendan eta Aixa frutategian jasoko dituzte Sahararako gauzak. Jasoko dituzten jatekoak dira: hegaluzea eta sardinak oliotan, pasta, arroza, azukrea eta lekaleak. Horretaz gain, konpresak ere jasoko dituzte. Herritarrei laguntza ematea eskatu diete.

> KIROLA

### Pilota txapelketari gaur ekingo diote, obrengatik eten ostean

Frontoiko obrengatik geldi egon ostean, gaur ekingo diote berriz pilota txapelketari. 18:00etan hasita honako partiduak jokatuko dira: Zubi-Txarli; Segurola-Pajaro; Aitzol-Endika; eta Irimo-Ota. Bigarren taldekoek hilaren 10ean jardungo dute, 10:00etan hasita. Hauek izango dira jokoan: Untzarri-Balerdi; Bidaurre-Jongu; Iñurrigarro-Torre; eta Palomo-Galardi. Sailkapenean, talde bakoitzeko lehenak Iñurrigarro eta Ota dira, oraingoz.

> ZERBITZUAK

### Abenduaren 19a ezkero zabalik dago liburutegi berria

Torresoroako liburutegia urte amaieran zabaldu zuten, abenduaren 19an. Ordutegia lehengo bera da: astelehenetik eguenera 16:45etik 19:30era eta egubakoitzetan 19:00etara bitartean. Aztertzen dihardute liburutegia goizez zabaltzeko aukera ere. Liburutegia berria izanik sumatu dute jendeak txartel eskariak egin dituela eta jakinarazi dute interesatuek liburutegira joan behar dutela horretarako.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

ANTZUOLA
Apainketak eta isolamenduak
•
Pladurrezko dibisioak
Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

Tomas Gezalaga
Zoruen kutxilatu eta bernizatzea
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR
taberna eta gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

Tomas Gezalaga
Apainketarako eta industriarako pinturak
•
Paper margotuak
•
Moketak eta tapizatuak
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA



Gabonetako umeen parkean sekula baino jende gehiago ibili da, antolatzaileen esanetan. IRATI AGIRREAZALDEGI

**GABONAK** > BALORAZIOA

# Gabonetako ekintzetako parte-hartzearekin pozik

Urteberri egunean lorontziak lurrean botata agertu zirela-eta Udalak haserrea azaldu du

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ELGETA

Gabonetarako ekintza mordoa antolatu da herrian eta Udaletik zoriondu egin nahi dituzte antolaketa lanean jardun dutenak. Txokolate jana, musika emanaldia, Olentzeroren etorrera, beteranoen pilota txapelketako finalak, umeen pilota eta bolo txapelketak, umeendako parkea, guatekea eta kantuak izan dira, besteak beste. "Elgeta herri bizia den seinale" direla esan digu Oxel Erostarbe alkateak.

Rebeka Ubera zinegotziaren esanetan, "arrakastatsua izan da Gabonetako parkea eta parte-hartzea sekula baino handiagoa izan da. Lehenengo egunean saiatu ginen jolasen eta tailerren bidez umeei erakusten eurek sortutako gauzekin ere ondo pasa daitekeela, eta badirudi umeei puzgarriak baino gehiago gustatu zitzaizkiela lehenengo eguneko ekintzak".

**APURKETAK**

Hala ere, urte hasieran dena ez da poztekoa izan Elgetan. Izan ere, Salbador kaleko lorontzi berriak lurrean agertu ziren urtarrilaren 1ean eta lehenago Aralarren egoitza egon zen Jabier Errastiren lokaleko erakusleihoko kristala hautsi eta pertsiana ere hondatu egin dute Gabonetan. "Egun argiz egindakoa izanda, burua eutsi zuenik ere egon da", dio alkateak, euren harridura eta haserrea erakusteko kaleratu duten idatzian.

"Mutikokeriok legearen babesik ez daukate eta neurriak hartzea bada dagokiona, hartu egin beharko dira. Herritarrok ezin duguna aguantatu da inpunitate osoarekin edozer egitea libre dela pentsatzea. Elgetan zaila da gauza hauek isilean egitea, eta inork ez ikusteko modurik onena ez egitea dela gogoratu nahi diegu herritar guztiei", dio Oxel Erostarbe alkateak.

Lorontziak jadanik ipini dituzte dagokien lekuan, Salbador kalean, eta berriz horrelakorik ez gertatzea espero dute.

**KIROLA** > PILOTA TXAPELKETAK

# Arantzabal-Telleria eta Peñalver-De Vega bikoteak irabazle herriko pilota txapelketan

Frontoia beteta izan zen finalaren egunean eta umeen pilota txapelketa ikusten ere jende asko izan zen

**I. A.** > ELGETA

Kirolak izan du bere tartea Gabonetan ere. Abenduaren 26an frontoia jendez beteta zela jokatu ziren helduen pilota txapelketako finalak, eta, antolatzaileen esanetan, sekulako giroa izan zen.

40 urtetik gorakoetan Alex Arantzabalek eta Alberto Telleriak jokatu zuten finala Jose Mari Zubiaurreren eta Iñaki Ugartebururen aurka. Lehenengo bikotea izan zen nagusi (22-14). Aurrez ere irabazitakoak dira herriko pilota txapelketa. David Peñalverrek eta Txomin de Vegak jokatu zuten 40 urtez azpikoen finala Unai Alkortaren eta Etor Garateren aurka. Partidu hartan ere lehen bikotea izan zen nagusi (22-7). Txapelketan jardun duten pilotariek elkarrekin afalduz ospatu zuten torneoaren amaiera.

**NESKA-MUTIKOEN FINALAK**

Helduek ez ezik, umeek ere izan dute pilotarako aukera. Hain zuzen, neskek palaz eta mutikoek eskuz jardun zuten, lagunen eta etxekoen animuekin pilotaz gozatuz eta frontoian giro polita sortuz. Benjamin aurrekoetan Malen Campos eta Egoitz Mañarikua izan ziren irabazle; benjaminetan Ainhoa Zeziaga eta Etor Zubiaurre; alebinetan Ibane Zubiaurre eta Josu Mañarikua; infantiletan Maitena Mañarikua eta Enrike Romero; eta kadete mailan Iñaki Olaortua.

**UDALA** > AZPIEGITURAK

# Zapateroren dirulaguntzak teilatuak konpontzeko

Udaletxeko eta kiroldegiko teilatuak berritzeko baliatuko da iragarritako dirua

**I. A.** > ELGETA

Krisiari aurre egiteko, Jose Luis Rodriguez Zapatero Espainiako presidenteak batez ere inbertsioetan oinarritutako neurri sorta iragarri zuen.

Laguntzak biztanleriaren arabera banatuko dira eta Elgetak 186.015 euro jasoko ditu. Udalek urtarrilaren 24ra arteko epea dute dirua zertan baliatuko duten jakinarazteko.

**LAGUNTZARIK EZEAN, AURTEN EZ**

Elgetan udalbatzar berezia egitekoak ziren eguenean, erabakitzeko dirulaguntza hori zertan erabili. Onartzekoak ziren diru hori baliatzea udaletxeko eta kiroldegiko teilatuak konpontzeko. "Dirua horretara bideratzeko arrazoi nagusia da beste erakundeek ez dutela dirulaguntzarik ematen horrelako kontuetarako", esan digu Oxel Erostarbe alkateak.

Dirulaguntza horiek jasotzen dituzten ala ez zain egon beharko dute teilatuen konponketa lanak egiteko. Laguntzarik ezean, aurten, behintzat, berrikuntza horiek ez dituztela egingo esan digu alkateak.

> ERAKUSKETA

### 'Begiradak' argazki erakusketa hilaren 30era arte Espaloian

Aitor Aulestiarte Berrizen bizi den argazkilari ondarrutarraren lanak ikusgai izango dira gaurtik (urtarrilak 9) hilaren 30era bitartean Espaloian. Afrikara, Ganbiara egindako bidaia batean ateratako argazkiak ipiniko ditu ikusgai. Denak zuribeltzean, eta, erakusketaren izenburuak adierazten duen moduan, hango biztanleen begiradak islatuko dira argazki horietan. Umeen zein helduen aurpegiak ikusiko ditu, batik bat, Espaloira joaten denak.

> ZINEMA

### Domekan hasiko dira umeendako neguko zinema saioak

Maala Guraso elkarteak bultzatuta, domekan, urtarrilaren 11n, izango da neguko domeka arratsaldeetako zinema saioetako lehena. *Doraemon* filma emango dute, 17:30ean, Espaloian. Sarrerak bi euro balio du eta Goibekoko bazkideendako merkeagoa izango da: euro bat. Datorren astean Herri Eskolan paper bat ipiniko dute, umeendako zinema saioak antolatzeko gertu dauden gurasoek izena eman dezaten, boluntario jarduteko.

ELGETAKO ETXEGINTZA S.L.
Telefonoak: 943 79 83 08 - 615 70 34 72
KONPROMISORIK GABEKO BISITA
BIZITZEKO GERTU

ELGETAN - TORREALDEA

2 logelako etxebizitza + 2 garaje itxi
36.407.000 pzta-tik aurrera

3 logelako etxebizitza + 2 garaje itxi
40.327.000 pzta-tik aurrera

4 logelako etxebizitza + 2 garaje itxi
56.481.000 pzta-tik aurrera

Garaje itxiak
1.997.000 pzta-tik aurrera

**ERAKUSKETA** > BUZTINGINTZA

# Buztingintzaren aztarnekin, galtzear dagoen ofizio baten bila



Aramaioko osoko bilkuren aretoa, buztinez egindako tresnaz beteta. GOIENKARIA

Araban oso hedatua eta miretsia izan den buztingintzaren gaineko erakusketa egon da Gabonetan Aramaion; 70 etxeko tresnatik gora izan dira ikusgai

**M.ARREGI/A. BARRUSO** > ARAMAIO

Ziur, inoiz, gure etxe eta baserrietan, amak ganbarara traste zaharren baten bila bidali gaituenean aurkitu dugula buztinez egindako katilu, plater edo ontziren bat; eta gure barruan ontzi, katilu edo plater horrek dagoeneko ezertarako balio ez duen baieztapena egin dugula, artisau lan horren balioaz eta tradizioaz ohartu edo pentsatzen ipini ere egin gabe.

Bada, gure herrian hainbat eta hainbat familiaren diru eta bizi iturri izan den buztingintza etorkizun hurbilean desagertzeko arrisku itzela duen ofizioa da; izan ere, dagoeneko ez da Euskal Herrian buztingile tradizionalik gelditzen. Zeramika tradizionalak etxeko ekonomiaren barruan funtzionaltasun zentzua galdu du, baina hori ez da inondik inora arrazoi pieza errepika ezin horiek duten balioaz eta tradizio kulturalaz gizartea ez ohartarazteko. Euskal Herriari dagokionez, Arabako buztingintza tradizionalak garrantzi handia izan du. Iberiar penintsulako beste buztingintza gune batzuetan ez bezala, Arabako buztingintza beste guztietatik bereizten da piezak erabat edo partzialki estaltzen dituen marra zuri batengatik.

Arabako Diputazioak ofizio zahar horren azken pintzeladekin erakusketa ibiltaria prestatu zuen duela lauzpabost urte eta Gabonetan izan da Aramaion erakusketaz gozatzeko aukera.

**70 OBJEKTUTIK GORA**

70 piezatik gora ipini dituzte erakusgai osoko bilkuren aretoan. 70 pieza, hainbat buztingileren artelanak. Guztiak ere, etxeko erabilpenerako egindakoak, hala nola ontziak, pitxarrak, txongilak, kazolak, platerak, katiluak, lorontziak...; guztiak errepika ezinak, bakarrak. Gabon garaian Aramaioko osoko bilkuren aretoa apaindu duten buztinezko etxetresnak 1989. urte inguruan egindako lanak dira, euren arbasoek erakutsitako teknika tradizionaletan oinarrituta egindakoak.

Erakusketan ipinitako 70 pieza horiez gain, Federiko Garmendia buztingile profesionalaren erakustaldiaz ere gozatu ahal izan zuten herrian, nahiz eta ez zen jende askorik egon.

**ARABAN GARAPEN AZKARRA**

Euskal Herriko gune menditsuetan artzaintza medio trantsumantzia egiten zenez, buztinezko tresnak ez ziren aproposenak batetik bestera ibiltzeko eta horregatik, Araban eta Nafarroan garatu zen beste guneetan baino lehenago.

**Federiko Garmendia** > Buztingilea

## "Etxeko tresnak egitetik bizi ginen, plastikoa sortu arte"



GOIENKARIA.

**M.A** > ARAMAIO

**Elosuan jaio zen Federiko Garmendia, Euskal Herriak eman duen azken buztingile tradizionala. 8 urterekin hasi zen ofizio horretan, eta egun, 86 urterekin, buztinarekin lanean jarraitzen du; buztingile jaio eta horrela hilko dela dio Garmendiak. Abenduaren 19an, Aramaion izan zen buztinarekin erakustaldia egiten.**

**Bizi guztia eskaini diozu buztingintzari; beraz, pentsatzekoa da garai baten bizi izateko adina ematen zuela.**

Ozta-ozta. Lan handia egin behar izan dugu bizi guztian eta nekez heltzen ginen horrekin bizi izatera. Garai haiek txarrak izan ziren orokorrean, eta buztingileentzat ere bai. Hala ere, orain baino gehiago ateratzen zen.

**Zer-nolako objektuak egin izan dituzu?**

Denetarik: itsulapikoak, katiluak, platerak, pitxarrak..., etxeko tresnak, azken finean. Izan ere, orduan, ez zen plastikoa existitzen eta urik ere ez zegoen gure etxeetako iturrietan. Horregatik, ur bila iturrira joan behar izaten zen eta pitxarrak behar izaten ziren horretarako.

**Zer eskaini dizu ofizioak?**

Zoriontsu izan naiz nire bizi guztian. Nekez genuen bizi izateko beste, baina zoriontasuna eman dit buztingintzak.

**Jendeak baloratzen du zuen lana?**

Oso gutxi. Jendeak ez du erakusketa eta halakorik ikusi nahi. Aramaion ere oso jende gutxi hurbildu zen ikustera.

## Triki-poteoa eta Urtezaharreko brindisa, urtero hitzordu



GOIENKARIA

Urtezahar egunean, Aramaioko presoen aldeko taldeak antolatuta, triki-poteoa egin zuten herrian. Urtero bezala, 40 lagun elkartu ziren alaitasunean eta lagun artean, urteko azken txikitoak hartzera. Baina horrekin ez ziren amaitu urteko azken eguneko ospakizunak; izan ere, gauerdia pasatuta, Gazte Asanbladak brindisa egin zuen, 2009ari ongietorria egiteko.

> KULTURA

## Gazteendako filmak eskainiko dituzte egubakoitzetan

Gazteei zuzendutako filmak eskainiko dituzte egubakoitz gauetan Aramaion hemendik aurrera. Gabonetan hasi zuten ekimena, abenduaren 25ean. Hura izan zen lehena, eta hemendik aurrera, egubakoitzero eskainiko dituzte filmak, gazteei zuzenduta. Gaur gauean, 22:15ean, Clint Eastwood aktore eta zuzendariaren *gaur* filma ikusi ahalko da. Hura II. Mundu Gerran girotutako filma da.

Domekan, berriz, *Colegas en el bosque II* filma eskainiko dute, arratsaldeko bostetan. Marrazki bizidunez egindako filma da.

**EGURALDIA** > ELURTEA

# Kaleak arriskutsu egon dira elurrarekin, errepideak ez hainbeste

Martitzen eta eguaztenean elurra izan zen protagonista, eta ikastolako autobusa ez zen iritsi; eguenean, ostera, izotzak eragin zuen arriskua

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Urteko lehen egunek elurra ekarri dute, elur askotxo, batez ere Gatzagako tontorrik garaienetara. Martitzen goizean, Errege Eguna, Gatzagako errepidea itxita egon zen eta eguaztenean ere askotan geratu zen zurituta. Horregatik, herriko umeak Arizmendi ikastolara eroaten dituen autobusa ez zen iritsi urte berriko lehen eskola egunean.

Arlabango errepidea, ostera, behin eta berriz ibili ziren garbitzen eta automobilek ez zuten arazorik izan pasatzeko. Atzo, eguena, izotza izan zen protagonista. Izozte handirik ez zuen bota, baina bideetako elur apurra gogortu eta arriskutsu bihurtzeko beste bai. Udalaren kamioiari pala jarri eta geratu barik ibili da egunotan, bide bazterrak garbitu eta gatza botatzen.

Hala ere, kaleak errepidea baino askoz arriskutsuago egon direla jakinarazi digute hainbat herritarrek: "Lehenengo, elurragatik, eta gero, izotzagatik; eskerrak autoak Dorletako bidegurutzean utzi genituela aparkatuta askok, bestela larri ibili behar herritik irteteko". Eta baserrietarako bideetan ere kontu handiarekin ibili behar izan dute.

**UMEAK, POZIK**

Elur egunak gustuko dituztenak umeak dira, eta egunotan gura beste jolas egiteko aukera izan dute Gatzagan. "Eguazten arratsalde guztian jolasean pasatu zuten, herri inguruko zelaietan lehenengo eta iluntzean karkaban", diosku guraso batek.



Gatzagako kaleak oso arriskutsu egon dira elurragatik eta izotzagatik. MIRARI ALTUBE

## Hainbat mutiko futbol eskolen txapelketan

Aretxabaletan jokatu duten Debagoieneko futbol eskolen arteko Gabonetako txapelketan Gatzagako hiru mutikok jardun dute: Xabier Fernandezek, Aratz Oñederrak eta Asier Urizarrek. Aretxabaletako futbol eskolako kideak dira hirurak eta dagoeneko bi denboraldi daramatzate. Lehenengo posturik ez lortu arren, gustura jardun dute txapelketan eta garaikurra ere jaso zuten (argazkian, Oñederra eta Urizar).



M.A.

> UDALA

## Andramari eta Olaun Goikoa baserriak aurtengo egutegian

Udalak dagoeneko banatu die 2009ko egutegia gatzagarrei; hain zuzen, Gabon jaiak aprobetxatu zituen banatzeko. Ohitura duen legez, Gatzagako baserrien argazkiak jarri ditu egutegi horretan, bi baserri hautatu ditu: Dorletako ermita alboan dagoen Andramari eta Arlabango errepidearen beste aldean dagoen Olaun Goikoa.

Banatutako egutegiak, gainera, herritarrendako interesgarria den informazioa dakar; hainbat telefono zenbaki, esaterako.

URONDO
Elektrizitatea
* Elektragaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Proiektuak
* Argiztapena
* Bobinaketak
Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

**ZIKLO-KROSA** > SORALUCE E. KOOP. SARI NAGUSIA, OSINTXUKO 2. ZIKLO-KROSA

# Puntako ziklistek baieztatu dute bihar Osintxun izango direla

Egunotan bota duen elurrak ez ditu ziklistak kikildu, Osintxun izango dira onenak

Espainiako Kopako azken bi probak izango dira Osintxukoa eta Itsasondokoa


Sumoficekoek eguaztenean erakutsi zuten ez diotela eguraldiari beldurrik, nahiz eta elurrak proba gogortuko duen. XABIER URTZELAI

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Eguaztenean bota zuen elurrarekin, Sumofic-Lokatzako ziklista gazteak Osintxuko zirkuitu berria probatzen ibili ziren, bihar aurrean ze erronka izango duten ikusteko: "Asfaltozko jaitsieran gatza bota beharko dugu, badaezpada", adierazi du Lokatzako ordezkari Iñigo Larrañagak. Lasterketa arriskuan egon daitekeen ere galdetu diogu, zirkuitua zuri-zuri dagoela ikusita, baina horrek ez du Larrañaga arduratzen: "Ez, gehiago arduratzen nau ziklistak Osintxura etortzeko errepideak egoera onean egoteak".

**PARTE-HARTZE HANDIA**

Euskal Herriko txirrindulariekin batera gainontzeko lurraldeetatik ere ziklista asko gerturatuko dira asteburuan gurera, izan ere, bihar eta etzi Osintxun eta Itsasondon egingo dituzten lasterketetan erabakiko da Espainiako Kopa.

Elite mailan Javier Ruiz de Larrinagak eta Tino Zaballak duelu ederra izango dute, bi ziklisten artean bederatzi puntuko aldea baino ez dagoelako. Atzerago daude Unai Yus, Isaac Suarez, Egoitz Murgoitio, David Seco edota Aketza Peña moduko ziklistak, lasterketak ze maila izango duen erakusten dutenak. Eta hori gutxi balitz, mendiko bizikletarekin palmares ikusgarria duen Jose Antonio Hermida ere Osintxun izango da bihar.

Emakumezkotan ere puntako ziklistak izango dira biharko proban. Antolatzaileek ahalegin berezia egin dute horretan, eta gainera, gizonezkoen eta emakumezkoen sariak berdindu egin dituzte. Gainera, mendiko bizikletako munduko kopa txapeldun Marga Fullanaren partehartzeak kolore biziagoa emango dio probari; badirudi Fullanak ziklo-krosa aukeratu duela mtb denboraldia prestatzen hasteko.

Dena dela, lasterketarako faboritoa azken hiru probak irabazi dituen Rocio Gamonal da, baina kontrario gogorrak izango ditu, besteak beste Rosa Bravo, Isabel Castro, eta Euskal Herriko txapeldun Ione Muxika. Puntako ziklista horiekin batera ibarreko hamabost ziklista inguru izango dira bihar proban.

## Ordutegia

10:00: Elite mailako emakumezkoak eta gazteak, master 30, 40 eta 50. (40 min).
11:00: Kadete mailako gizonezko eta emakumezkoak (30 min).
12:00: Gazte mailako gizonezkoak (40 min).
13:00: Elite mailako gizonezkoak eta 23 urtez azpikoak (60 min).


Marga Fullana. WWW.MARGAFULLANA.COM


Igartua eta Elgarresta, iaz Ibarran jokatutako derbian. ARTXIBOA

**FUTBOLA** > PREFERENTEA

# Urteko lehena, eta gainera derbia

Lider dagoen UDAk Aloñaren bisita izango du domekan Ibarra futbol zelaian (16:30)

**X.U.** > BERGARA

Orain momentuan preferenteko jabe dira Aretxabaleta (31) eta Tolosa (31), baina oraingo asteburuan Tolosak baino kontrario gogorragoa izango du Aretxabaletak, Aloñako (28) mutilak aretxabaletarrei Gabonetako turroiak kontrako eztarritik sartzen ahaleginduko direlako. UDA izan da urtea indartsuen amaitu duen taldea, baina kontuz oñatiarrekin, ligan bi partidu baino ez dituzte-eta galdu. Hala, bi talde horiek derbiarekin hasiko dute domekan 2009a.

**MONDRAK, IDIAZABALEN**

Mondrak (20) kolpe gogorra jaso zuen UDAren kontra, urteko azken partiduan (1-2). Baina burua berriro altxatu eta sailkapenean parean dagoen Idiazabalen zelaian lan ona egiten ahalegindu beharko dute bihar, 16:30ean.

## asteburuko hitzorduak

**FUTBOLA**

**Bigarren maila**
Reala-Rayo Vallecano
Domeka. 17:00. Anoeta.

**Gazteen euskal liga**
Aretxabaleta-Lengokoak
Zapatua. 17:45. Ibarra.
Bergara-Sestao River
Domeka. 17:30. Ipintza.

**Preferente maila**
Aretxabaleta-Aloña Mendi
Domeka. 16:30. Ibarra.
Idiazabal-Mondra
Zapatua. 16:30. Ibarra.

**Lehenengo erregionala**
Mondra-Aretxabaleta
Zapatua. 18:00. Mojategi.
Mutriku-BTLS
Domeka. 15:45. San Miguel.
Bergara-Antzuola
Zapatua. 15:45. Agorrosin.

**Ohorezko gazte maila, Kopa eta jaitsiera**
Tolosa-Aloña Mendi
Zapatua. 11:00. Tolosa.

**Emakumezkoak, igoera fasea**
Allerru-Arizmendi B
Zapatua. 15:30. Lezo.
Mondra-Intxaurdi B
Zapatua. 16:00. Mojategi.

**Emakumezkoak, Kopa**
Aloña Mendi-Amaikak Bat
Zapatua. 16:30. Azkoagain.
Arizmendi-Eibartarrak-Eibar
Zapatua. 15:30. Almen.

**ESKUBALOIA**

**Euskadiko Txapelketa, senior gizonezkoak**
Ford Mugarri Arrasate-Portugalete
Zapatua. 17:30. Iturripe.

**Euskadiko Txapelketa, senior emakumezkoak**
Verkol Aloña Mendi-Elorrio esku.
Zapatua. 16:30. Zubikoa.

**Euskadiko Txapelketa, emakumezko kadeteak**
Verkol Aloña-Matiko kirolak
Domeka. 10:30. Zubikoa.

**Gipuzkoako lehen territoriala**
Ormaiztegi-Soraluce BKE
Zapatua. 18:30. Ormaiztegi.

**Gipuzkoako big. territoriala**
Aloña Mendi-Urola Super BM
Domeka. 12:00. Zubikoa.
Ereintza-Arrasate Eskubaloi.
Zapatua. 19:00. Errenteria.

**SASKIBALOIA**

**Lehen nazional maila**
Viajes Marfil-Mondragon Uniberts.
Zapatua. 18:15. Iruña.

**Senior mailako gizonezkoak**
Autorrecambios B-Soraluce BKE
Egubakoitza. 21:00. Beasain.
Errotaundi-Soraluce BKE
Domeka. 16:30. Azpeitia.
Erroibide-Aloña Mendi.
Zapatua. 19:00. Irun.

**Senior mailako emakumezkoak**
Eskoriatza KE-Oiarso
Zapatua. 18:00. Intxaurtxueta.

**Gazte maila, gizonezkoak**
Erroibide Irun-Aloña Mendi
Zapatua. 17:00. Irun.

**Gazte maila, emakumezkoak**
BKL CAF-Soraluce BKE
Zapatua. 12:15. Beasain.

**ERRUGBIA**

**Gizonezko seniorrak**
Arrasate-Elorrio (lagunartekoa)
Egubakoitzean. 19:30. Mojategi.

**Emakumezko seniorrak**
La Unica-Arrasate
Zapatua. 16:00. Iruñean.

**ZIKLO-KROSA**

**Soraluce E.Koop. Sari Nagusia, 2. Osintxuko ziklo-krosa**
Zapatua. 10:00etan hasita.
Osintxun egin duten zirkuituan.



**> DANBAKA**
Finalean, urtarrilaren 16an, Petti izango da musikari gonbidatua **> 26**




**> LIBURUTEGIAK**
'Neguko Gida' kaleratu dute bailarako liburutegiek **> 26**




**> ALBERTO COTO**
Kalkulugilea GOITBko 'Erreportajea' saioko protagonista izango da **> 30**

# Birziklatutako materialarekin egin daitekeenaren erakusle

'Zaborreria, birziklatuz sortu' erakusketa dago ikusgai Aretxabaletako Arkupe kultura etxean

Plastika eta natura elkarlotzen dira Birbira taldearen erakusketa bitxi horretan



**BIRZIKLATUZ SORTU** Erakusketa hilaren 31ra arte ikusi ahalko da Arkupe kultura etxean. MIRARI ALTUBE

**MIREN ARREGI** > ARETXABALETA
Iraunkortasunaren, natura zaintzearen edota birziklapenaren garrantziaz ohartzen ari da gizartea pixkanaka-pixkanaka, betiere erakunde, eragile, eta instituzioen kontzientziazio kanpainen bultzadaren laguntzarekin. Birziklapena da kontzientziazio horren eragile edo oinarri nagusia, eta herritarrok ari gara ingurumena garraisika eskatzen ari den iraunkortasun horrekin bat egiten. Geroz eta gehiago birziklatzen dugu, eta geroz eta gehiago gara ingurumenaren garrantziaren jabe, nahiz eta oraindik egiteko dagoen bide guztian lehen urratsak diren horiek.

Gizartea ekologiaren garrantziaz ohartarazteko bide horretan, urtero, gure herrietako udaletan ingurumenarekin lotuta hainbat kanpaina antolatzen dituzte. Horietako kanpaina bat Aretxabaletan gauzatuko dute urtarrilean zehar; hain zuzen ere, ingurumen hilabetea antolatu dute bertan. Horren barruan, beste batzuen artean, nabarmentzekoa da hilaren 31ra arte Arkupe kultura etxean erakusgai ipini duten erakusketa: birziklatutako materialekin jostailu, jantzi zein objektuak egin daitezkeela erakusten du erakusketak.

Birbira talde nafarraren eskutik datorkigu erakusketa, baina Aretxabaletan egoteaz gain, *Zaborreria, birziklatuz sortu* deiturikoak badu Debagoienarekin beste lotura bat; izan ere, Birbira taldeko kideetako bat –bi dira– oñatiarra da: Ines Gereka biologoa, hain zuzen ere. Beste kidea, berriz, Amaia Zinkunegi da, nafarra eta Arte Ederretan lizentziaduna.

Duela bost urte sortu zuten taldea, birziklapenaren eta ikastetxeetako plastika irakasgaiaren kontzeptuan aldaketa bat emateko helburuarekin, batetik, eta, botatzen ditugun gauzen erabilgarritasunaz jabetuz, hondakinen sorrera murrizteko helburuarekin, bestetik.

Bereziki umeei zuzendutako erakusketa dela diote egileek, baina plastikak eta naturak bat egiten duten erakusketa horrek bestelako publikoari ere irekitzen dizkio ateak, zalantzarik gabe. Badirudi ikastetxeetan batez ere hondakinen berrerabilpenak aldaketa eta iraultza kontzeptuala ekarriko duela etorkizun hurbilean eta *Zaborreria, birziklatuz sortu* erakusketa aldaketa horren beste erakusle bat da.



Xaboi-ontziak. MIREN ARREGI



Arropak ere egin dituzte. MIREN ARREGI

**BERRERABILIZ, ARTEA EGINEZ**
Aretxabaletako Arkupe kultura etxean sartzen dena ez da oharkabean pasatuko erakusketa gela ondotik, Birbira taldekoek ekarri dituzten birziklatutako materialekin egindako irudien egiturak eta koloreak ez dute uzten-eta bat oharkabean pasatzen.

Laten tapoiekin egindako koadroak, xaboi-ontziekin egindako txori edo bestelako animaliak, ureztagailuarekin sortutako aurpegia, jogurt poteekin egindako lanparak, plastikoarekin eta jogurt poteen gainazaleko paperak erabiliz egindako dragoia, lurrin-ontziekin egindako karramarroak... Guztiak bereziak, bakarrak eta, batez ere, erakargarriak. Irudimen kontuekin motz dabilen edonori, ikuspegia zabaldu eta ideia berrien munduan murgiltzeko bidea eskaintzen dio erakusketak. Denetariko materiala erabiltzen dute, gainera, baina oinarria plastikoa, ontziak eta beira dira. "Ez dugu ez kolarik ez halakorik erabiltzen materialak elkarlotzeko, guztia birziklatutako edo naturako materialekin egiten dugu", dio Ines Gerekak. Kolorea da erakusketari dagokionez nabarmen daitekeen aspektuetako bat. Kolore bizi eta alaiak erabiliz egindako objektuak dira guztiak, nolabait umeei zuzenduriko erakusketa batek beharrezko duen osagaiaren adierazle.

ESANAK

**"Iraunkortasuna, natura eta plastika elkarlotuz, plastikaren kontzeptua aldatzea da Birbira taldearen helburuetako bat"**

**Ines Gereka** > Erakusketaren egilea

**ESKOLA ORDUETAN BISITAK**
Debagoieneko Mankomunitateak, bestetik, eskola orduetan erakusketa ikustera joateko irteerak antolatuko ditu. Gainera, Arrasaten, Bergaran eta Oñatin ere ipiniko dute gerora erakusketa. Aretxabaletako ordutegia goizez 11:00etatik 13:00etara eta arratsaldez 18:00etatik 20:00etara izango da.

**DANBAKA** > FINALA

# Hiru talde, hiru proposamen ezohiko eta bi disko jokoan

Ikuslearen saria finaleko egunean bertan erabakiko dute kontzertura gerturatzen direnek

Berako Petti musikariak banda elektrikoa ekarriko du finalari amaiera dotorea emateko



Pettik bere banda ekarriko du; finalerako talde gonbidatu moduan datoz. GOIENKARIA

**JOKIN BEREZIARTUA** > BERGARA

III. Danbaka musika lehiaketa datorren egubakoitzean amaituko da. Lehiaketa geografikoki zabaltzeko hautua egin den hirugarren edizio hau heldu da azken kontzertura, itxarondako final handira. Atzean sei emanaldi gogoangarri utzi ditugu, Debagoieneko, Debabarreneko eta Durangaldeko 24 musika talderen ordu erdiko 24 erakustaldi. Aurreko bi edizioetan gertatu bezala, estilo aniztasuna izan da nagusi, baina hirugarren edizioan, aurreko biak gutxietsi barik, musikarien maila handia nabarmendu beharra dago. Hala, epaimahaiak inoiz baino lan zailagoa izan du hiru finalistak aukeratzeko.

Joan den abenduaren 22an *Asteleheneko Goienkaria*-n jakinarazi ziren hiru finalistak: Bergarako Adi Holden, Mutrikuko The Wet Band eta Eibar eta Ondarroako Norman.

**BERRITASUNAK FINALEAN**

Finala, beraz, datorren egubakoitzean izango da, 22:30ean, Espaloian. Zazpigarren eta azken emanaldi berezi horrek aldaketa txiki batzuk izango ditu. Aipagarriena da hiru finalistek eskainiko duten kontzertuen iraupena 40 minutukoa izango dela; hau da, hamar minutu gehiago. Adi Holden igoko da lehena, gero The Wet Band eta azkenik, Norman. Zuzeneko musika, baina, ez da hor etengo. Izan ere, Petti eta bere banda elektrikoa igoko dira Espaloiko taula gainera, talde gonbidatu moduan.

**FABORITORIK EZ**

Hiru finalistek aukera berberak dituzte lehiaketa irabazteko, ez dago faboritorik. Finalean egoteko arrazoiak ezberdinak dira bakoitzaren kasuan. Hala, Adi Holden aukeratzeko, epaimahaiak talde bergararraren "ezezenaratze basati eta muturrekoa" eta "ongi egituratutako eta intentsitate handiko emanaldia" nabarmendu zituen. The Wet Band hautatzeko, ordea, gitarra jotzailearen lana, "tresnari probetxu guztia" atereaz, eta kantariaren "ahots berezi, distiradun eta erregistro zabalekoa" azpimarratu zuen epaimahaiak. Azkenik, Norman "potentzia handiko" taldea da, "aberatsak erritmikoki eta irmoki indartsuak", epaimahaiaren ustez. Final zabala aurreikusten da, hortaz.

**SARIA IRABAZLEEI ETA IKUSLEARI**

Petti eta banda elektrikoaren emanaldiak irauten duen bitartean aukeratuko ditu epaimahaiak Danbaka lehiaketako talde onena eta Debagoieneko talde onena. Bi sariak berberak dira: disko baten grabazioa eta Gaztelupeko Hotsak-ek eta Danbakak elkarlanean kaleratzea. Bergarako Adi Holden –finaleko talde debagoiendar bakarra– lehiaketako irabazlea balitz, saria Debagoieneko beste talde batentzat joango litzateke, finalera heldu ez den bigarren talde debagoiendar onenarentzat, hain zuzen. Norman edo The Wet Bandek irabaziko balu, Adi Holdenek irabaziko luke Debagoieneko talde onenaren saria. Adi Holdenek, hortaz, ziurtatua du saria.

Publikoaren saria irabazten duen taldeak, bestalde, 1.300 euroko saria jasoko du Arrasateko Lazkano Musika dendan gastatzeko. Ez ahaztu, gainera, bozkatuko duten ikusleen artean snow taula zozkatuko dutela.



The Wet Band. JOSETXO ARANTZABAL



Norman. JOSETXO ARANTZABAL



Adi Holden. JOSETXO ARANTZABAL

**DEBAGOIENA** > 'NEGUKO GIDA'

# Literatura, musika eta zinema onena, hotzari aurre egiteko

Debagoieneko Mankomunitateak liburu, disko eta filmak gomendatzen dituen 'Neguko gida' atera berri du; ibarreko udal liburutegiak biltzen ditu

**J.B.** > BERGARA

Negu gorria aurtengoa, etxean goxo-goxo geratzera animatzen duen horietakoa. Etxean geratzea ez da zertan egun osoa telebistari begira egotearen sinonimo izan, eta badaude asperdura ekiditeko bestelako alternatibak.

Hala, galbidean dagoen irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko helburuarekin, Debagoieneko Mankomunitateak 2009ko *Neguko gida* atera berri du; *Hotzaren kontrako sekretuak* bataiatu dute. Sekretuok dira Debagoieneko udal liburutegietan eskura daitezkeen liburu gomendagarrienak. Beraz, zer nahi duen ez dakien irakurleari zer irakurri aholkatzea da gidaren eginbehar nagusia.

**ADINEN ARABERAKO LITERATURA**

Ibarreko udal liburutegi guztietan eskuragai dagoen gida horren literatura eskaintza adinen arabera sailkatuta dago, guztira bost mailatan: 0 urtetik aurrera, 6 urtetik aurrera, 9 urtetik aurrera, gazteak eta helduak. Txikientzako marrazki eta ipuinez gain, gazte eta helduentzako eskaintzari dagokionez, denetariko gaiak lantzen dituzten eleberriak dira nagusi.

**MUSIKA ETA ZINEMA ERE BAI**

Debagoieneko udal biblioteken *Neguko gida*-n literatura da protagonista nagusia. Hala ere, liburutegian lor daitezkeen disko eta film batzuk ere gomendatzen dira. Ez dira agian musika dendetan edo zinematan aurkitzen diren izenburuak, baina horrek ez du esan nahi kalitatezko lanak ez direnik. Besteak beste, Jason Collett-en *Here´s to being here* diskoa eta Sidney Lumet zuzendari izan zuen *Antes que el diablo sepa que has muerto* pelikula famatua daude eskuragai.

Gainera, bestelako informazio erabilgarria ere badakar gidak, hala nola liburutegien telefono, helbide eta ordutegiak.

> ESKORIATZA

## Benito Lertxundik urtarrilaren 30ean emango duen kontzerturako sarrerak azkar dabiltza saltzen

Joan den abenduaren 20an Arrasateko Amaia antzokia lepo bete zuen Benito Lertxundik; kontzertua baino aste bi lehenago agortu ziren sarrera guztiak. Orduan sarrera gabe geratu zirenak orain dute aukera, urtarrilaren 30ean, Eskoriatzako pilotalekuan. Sarrerak badaude oraindik, baina interesatuak azkar ibili beharko du. Izan ere, Eskoriatzako Udaleko Kultura Sailak adierazi duenez, sarreron salmenta azkarra ari da izaten.

Sarrerak erosteko: Eskoriatzan, Dorleta liburu dendan, Inkernun, Goxotxikin eta Igehik-en; Aretxabaletan, Kioskoan; Arrasaten, Monte tabernan; eta Oñatin, turismo bulegoan. Aldez aurretik erosita, 13 euro eta txarteldegian, 15 euro.

> ARGAZKI LEHIAKETA

## Zabalik da Debarroa ekimenak antolatzen duen argazki lehiaketan izena emateko epea

Gure landa ingurunearenganako kontzientzia eta hurreratze jarrera hartzea helburu nagusi duen *Debarroa, menditik itsasora* egitasmoak hirugarrenez antolatu du argazki lehiaketa. 2008-2009 ikasturtean parte hartzeko maiatzaren lehena baino lehen aurkeztu beharko dira argazkiak. Argazkiek Debarrena eta Debagoieneko landa eremua islatu behar dute: landa paisaia, landa inguruko biztanleak, nekazaritza jarduerak, folklorea eta ohiturak, baserriko produktuak... Sariak, garaikurrez gain, bideo kamera, argazki kamera eta MP4 bat izango dira, hurrenez hurren. Beste edozein informaziotarako deitu 94 630 07 30 telefonora.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** 88 metro koadroko etxebizitza salgai. Balkoia, garajea, trastelekua eta igogailua. Etxeak 7 urte ditu. 250.000 euro. Deitu 697 78 07 29 telefonora.

**Aramaio.** Etxebizitza saldu edo errentan ematen da Ibargoian. Hiru logela, sukaldea, egongela eta komuna. 620 59 86 55.

**Aretxabaleta.** 72 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Aukera ona. 659 64 67 38.

**Oñati.** 90 metro koadroko etxebizitza salgai Bidebarrietan. Hiru logela, bi bainugela, ganbara (etxearekin bat eginda) eta garajea. 656 79 88 12.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxebibitza ematen da errentan Ferrerias kalean. Gela bat, sukaldea, egongela eta komuna. 619 34 88 52.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Erguinen. Oso egoera onean. Bikote batentzat egokia. Deitu 620 15 15 08 telefonora.

**Arrasate.** Logela bateko apartamentua ematen da errentan erdigunean. 500 euro hilean. Bulego ordutegian deitu. Deitu 943 77 13 02 telefonora.

**Oñati.** 90 metro koadroko etxebizitza berria ematen da errentan Kurtzebide kalean. Santa Marina plaza ondoan. Hiru logela, bi bainugela, garajea eta trastelekua. Deitu 652 71 74 33 telefonora.

**Oñati.** Hiru logelako etxebizitza ematen da errentan Olakuan. Guztiz berritua eta jantzia. Garajea aukeran. 665 72 87 89 edo 657 72 25 70.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Bikote arduratsu eta garbiak logela bakarreko apartamentua hartuko luke errentan. 666 21 88 95 edo 943 77 07 01

**Arrasate.** Etxebizitza hartuko nuke errentan erdigunean. Bi edo hiru logela. Presazkoa. 636 25 56 68

**Bergara.** Baserria errentan hartuko nuke Bergaran edo inguruan. 665 70 21 92

**Bergara.** Etxebizitza behar dut errentan. 699 66 33 63 edo 689 20 13 17

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. Deitu 658 28 90 86 telefonora.

**Debagoiena.** Etxea errentan hartu nahi nuke, pertsona batentzako. 653 70 84 09.

